

TOKIKOM

# karkara

Orioko eta Alako aldizkaria 2012ko apirilaren 27a. 316. zenbakia



## **Ikasbidaia**

## **Katalunian barrena**

Aste Santu aurretik Katalunian ibili dira Ikastolako DBH4ko ikasleak eta hiru irakasle. Hango bizikizunak kontatu dizkigute.

### **05**

**Orioko kontuak**  
Arrauna eta Orio argazkietan

### **10**

**Aiako berri**  
Fatima Larrañaga

### **21**

**Iritzia**  
Jaunartzeak

### **25**

**Herritarrak**  
Amaia Gozategi

# agirresarobe

PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

- OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |
- ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |
- FATXADEN ERABERRITZEAK |
- ISOBAILUEN PROIEKTUAK |
- GREMIO KOORDINAKUNTZA |
- INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... |

ITURRIBIDE 8, S. BULEDDA, ZARAUTZ  
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722

*Sukalde eta bainuen erreformak*



# XANTI MUJIKA

## Igeltseritza

699 46 76 21  
943 13 10 37



Orioko  
Herri  
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net



## AKOBE ACTIVA

### JUAN ALBIZU

Etketresna elektrikoak  
sukaldeko altzariak

Abeslari, 6 20810 ORIO  
Teli/Fax: 943 83 12 49 - albizu@activahogar.com



## zkué

Tf: 943 13 04 38



## Allianz

Marigre Zaldua  
aseguru agentea

Euz. Ondu, 10 behe-oina  
Telefonoa: 943 13 47 90  
fax: 943 61 67 52  
e-maila: zaldua.dolores.pa@allianz.es

## uranga

autozerotzua



## Aliprox

Euzko Gudar Jaia 13-15  
ORIO  
943 63 18 75

Kinkladenda - Uma arropa



www.lasnet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

edariologia

## ANTILLA

jatelekuak

Norabizi kalea, 2 - TEL. 943 13 29 00



FISOTERAPIA - Geraketa Arkitektura Natalia Wierzbicki  
NUTRIZIONISTA - Geraketa Aizpuru

## sinergia

investigacion  
fisioterapia

Ibaiz ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

## URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremakak

fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudar., 9



## Sagasti

### LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI  
Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orio (Gipuzkoa)

telex: 943 89 00 69  
Bilburiako, 4 22800 ZARAUTZ



## URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA



## Alustiza Autobusak

Autobus ltera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 95



## ORIOGI

OPIL OKINDEGIA  
frontoi ondoan

Tfnoa: 943 83 01 89

## Iñigo Cabacasek bide emanda

**1**

Hilan bosteko distantziatik landu nahi dut notizia. Bilbon istilu bat omen zela oldartu zen polizia; gazte bat grabe buruan jota, pinta oso itsusia. Batzuek ondo bermatzen dute segurtasun gabezia.

**2**

Astelehenean hil zen Iñigo, betilunak ta malkoak, ustegabetik ez zuen asko Ares-en azken *tantoak Leon-Kastillo* egiten baitu tiroka peloteroak. Baten biziko direnak daude ta bestean hildakoak.

**3**

Gerora Iñigo Cabacasenak aztoratu du mundua. *Hurrena zu zeu izan zintezke!* ta sortzen du apurua. Gaur badirudi hilotz baten zain zegola batzun burua, kuestionatzeko hemen daukagun polizia eredu.

**4**

*Dimititu, Ares! Berdinarekin hona ez zaitez itzuli!* Pelotazoen ondorioak jakinda hola ibili, nahiz arnei kulpa botata orain nahi dun ardura estali. Ministro batek baimendu ditu zer ta nola erabili.

# 316

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur Etxea,**  
Eusko Gudari, 26  
20810 Orio  
943 831 527  
karkara@karkara.com  
www.karkara.com

### Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

### Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

### Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

### Erredakzio taldea

Pat Cowie,  
Miren Etxeberria,  
iker Gurrutaga, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

### Publizitatea

Pat Cowie

### Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze  
eta Iker Gurrutxaga

### Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria  
eta Jabier Zabaleta

### Ale honetako laguntzaileak

Jon Ander Azpiroz,  
Ander Errasti,  
Iñigo Fernandez,  
Iñaki Iturain,  
Unai Manterola,  
eta Iñigo Tapia

### Laguntzaileak

Onintza Aiestaran

### Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

### Banatzzaileak

Cristina Burlacu eta  
Iban Recio (Ori)

### Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

#### Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin  
(695 780 720)  
edo [publizitatea@karkara.com](mailto:publizitatea@karkara.com)  
Prezio hauei BEZA gehituko zale

### LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Hondakinek badute irtenbidea

Gipuzkoan arazo larri bat dugu zaborra-ekin. Urtean 350.000 tona hondakin sortzen ditugu eta etxeko hondakinen %75 nahasita, zabor bihurtuta, jasotzen ditugu. Zabortegi kutsakorrek gainezka egiten ari zaizkigu eta batzuek arazoari proposatzen dioten sasi-irtenbideak, errausteak, ez digu itxaropenerako tar-terik uzten.

Munduan begiratzen baldin badugu, gauzak aldatzen ari direla ikus dezakegu. Natura ustiatuz eskuratutako materia-lez osatuta daude hondakinak. Material horiek nahastu, zabor bihurtu eta suntsitu beharrean, diren bezala ikusten hasteko garaia da, baliabide bezala. Hondakinak nahasten ez baditugu, berreskuratu, berriz ere ekonomian txertatu eta produktu berriak egiteko balio dute. Hondakinak ez sortzen saiatu eta birziklatzeko neurri eraginkor eta errealak ezartzen dituen ereduari Zero Zabor eredu-a esaten zaio.

Gipuzkoak ere badu hondakinentzako irtenbidea. Zero Zabor programa osatu eta Zero Zabor eredu-a ezartzea eskatzen duen mugimendua gero eta zabalagoa, eta gero eta indartsuagoa da. Horren guztiaren berri izan, zalantzak argitu eta proposamenak eztabaidatzeko aukera izango duzu maiatzaren 3an, osteguna, 19:30ean, Orioko Kultur Etxean, Gipuzkoa Zero Zaborreko kideek emango duten hitzaldian. Bestalde, maiatzaren 5ean Urtetako zabortegira bisita gidatua antolatuko dugu. Irteera, goizeko 09:30ean izango da, Orioko Herriko Plazatik abiatuta. Horrez gain, ekainean, Usurbilgo atez ateko sistema ezagutzeko beste irteera bat egingo dugu.

Besterik gabe, bertan elkar ikusiko dugulakoan, agur. ■ **Orio Zero Zabor.**

## Demagogia gehiegi

EAJ erasoan dabilela diote. Hitzek ez dute erasotzen, ez dira mertzenarioak, gertatzen ari denaren berri ematera mugatzen dira; Bilduren gobernuaren ekin-tza, jarduera eta jokabideen berri eman besteri ez dugu egin.

Egia esatea ez da ez erasotzea ez eta akusatzea edo deskalifikatzea, informazioa baizik.

Behin eta berriz aipatzen zuten (eta aipatzen dute) EAJren jarrera prepotentea. Gu beti argi eta garbi azaldu izan gara. Demagogiarik gabe. Gertatzen dena zera da, Bilduko jendea eta bere "aholkulari" taldea ez dagoela ohituta.

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAra bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Nonbait, ohituago daude nahasmena sortzen duten metodoen erabilerara, errealitatera hurbildu ere egiten ez diren mezuak igorri.

Nahasmenaren metodo hau udal aurrekontuaren eta hiri planeamenduaren inguruan erabiltzen ari dira.

Aurrekontuaren inguruan esan beharra dago otsailaren 23ko osoko bilkuran onartu zela 2012rako udal aurrekontua, idazkariaren kontrako txostenari jaramonik egin gabe. Zirriborro mordo bat izan ditugu eztabaida garaian eta, nahasmen gehiagotan ez erortzeko, onartutako aurrekontuaren kopia eskatzen dugu. Gaur, apiriliak 24, oraindik ez dugu kopiarik. Zergatik?

Hau da dugun errealitatea. Edonork hau horrela dela egiaztatu nahiko balu, udaletxean bi agiri hauek eskatzea besterik ez du: aurrekontua eta idazkariaren txostena. Seguruena, ez du erantzunik jasoko. Hauexek dira metodo berriak, udal gobernuaren haize berriak.

Hirigintzari dagokionez, zinegotzi ohiek edo "aholkulari" berriek, herria kaos batean murgilduta utzi genuela zioten. Arauek forma administratiboa guztiz betetzen ez zutelako salaketa bat jasan zuten: dokumentuak ez zuela estudio ekonomiko-finantziaroa, alegia. Kasu honetan EAJ Orioko herriaren interesen alde aritu da beti. Esan beharra dago errore hura dagoeneko konponduta dagoela eta Hirigintza Plan Orokorra baduela Oriok Arau Subsidiarioen balio-gabetzeak erakar ditzakeen arazoei aurre egiteko.

Hauxe da bizi dugun errealitatea. Ez dugu kaosik herri planeamenduan. Eta lotsa gutxi behar du kaos hitza aurreko legealdian nahasmena eta nahasketa sortu izan duten zinegotzien ahotan en-

tzuteko. Gogoratu 2007-2011 agintaldian alderdi guztiek izan zituztela ardurako politikoak; hau da, ezker abertzaleak 2 batzorderen ardura izan zuela.

Zera suposatzen dugu: zinegotzi ohiek, egungo udal gobernuak kaosa ongi bideratzeko nahiko lan izango duela esaten dutenean, beren ezintasunaren ondorioz utzitakoaz ari direla.

Eta udal kontuen inguruan nahasmen mezuak bidaltzen jarraitzen dute zera esaten dutenean: udal azpiegituren mantenuan 150.000€ gastatu beharko dituztela EAJk egindako kudeaketa txar-erengatik.

Berriz ere, nahasmenean. Azken lau urteetako aurrekontuak begiratu, ikus genezake urtean 400.000€ bideratzen direla lan horietarako; udal azpiegiturek dagokien zerbitzu egokia ematen jarraitzeko egin behar diren mantenu eta ego-kitzapenak egiteko, alegia.

Bilduko jaun-andreak, ez egin demagogiarik. Hizketan jardun egiten zarete ezer handirik esan gabe, daturik gabe, frogarik gabe eta amaigabeko demagogiarekin. Udaleko haizeak kutsatzen zabalitzate, orain arteko udal gobernuak lortutako aurrerapausoei eta garapenei frenoa jartzen. ■ **Orioko EAJ.**

## Zatozte plazara!

Martxoan hasi genuen, udaberriko azken ostiralean, Herrira ekitaldi sorta. Gregorio Eskuderok 10 urte espeskean daramatzala gogoratzeko ekitaldi xume bezain berezia antolatu genuen. Hara agertu zineten guztiei, eskerririk asko.

Baina, udaberria ez da martxoan bukatzen, eta gaur da apirilko azken ostirala, apirilaren 27a. Agian, etxe guztietara ez da iritsi Karkara gure ekitaldia hasierako, baina, badaezpada ere, gonbidatuta zaudete arratsaldeko 19:00etan plazatik hasiko dugun trikopoteora: Kalejira, goazen plazara. Plazan hasi eta plazan bukatuko dugu kalejira, hileko azken ostirala da-eta.

Baina adi, maiatza bete-beteta dakarkigu-eta. Maiatzaren 9an, asteazkena, iluntzeko 19:30ean, Orioko Herrira taldearen aurkezpen ofiziala egingo dugu. Testu hauei aurpegiak jarriko dizkiegu. Maiatzaren 19an, Euskal Herriko beste hainbat herritan egingo den bezala, Goazen plazara ekimena egingo dugu, eguerdian, presoekiko elkartasuna adieraziz herriko plaza betetzeko asmoz. Eta maiatzaren 26an, azken ostirala, Elkartasunari kantari deitutako ekitaldia egingo dugu. Ekainean ere izango dugu zereginik, izango duzue gure berri. Birtartean, goazen plazara! ■ **Orioko Herrira.**



1910eko Kontxa irabazi ondoreneko argazkia. KUTXA FOTOTEKA

# Orioko eta arraunari buruzko argazki bilduma sarean dago eskura

Kutxako fototekako 900 argazki ordenatu, guztiak izendatu eta datu zehatzak jarri ondoren, interneten zintzilikatu du bilduma Joxemari Olasagastik, edozeinek lasai ikusteko eta eraisteko.

Kutxako fototekan dauden arraunaren eta Orioren inguruko argazkiak sailkatzen aritu da Joxemari Olasagasti arraunzalea, eta ikusgai jarri ditu interneten.

Kutxako fototekan Gipuzkoako mila argazki daude jasota. XX. mendearen hasieratik gaur egunera artekoak denak: paisaiak, jaiak eta ohiturak, gizarteko gertakariak, kultura, pertsonaia ospetsuak... eta, jakina, kirolak. Kirolaren barruan traineru estropadak eta horien inguruan gertatutako kontuak ere jasota daude.

Orioko arraunlariei eta horiei lotutako argazkiak jaso eta sailkatu ditu Joxemari Olasagastik, bilduman; 900 argazkitik gora guztira. *Harrigarria da zenbat argazkitan azaltzen diren arraunlari oriotarrak.* Besteak beste, honakoak aipatu dizkigu Olasagastik: 1942, 1946, 1951, 1952, 1970... Kontxako estropadak badian, Bandera jasotzen Donostiako Konstituzio plazan, herriko ongieto-

rriak, Foru Aldundiko harrerak, Orion banderen bedekazioak arraun-erakustaldi eta bazkariekin... *Bertan azaltzen dira –laster ezagutuko dituzue, batzuetan harriduraz– norberaren familia-ko hainbat kide: aiton-amonak, gurasoak, osaba-izebak... herriko erakuntza ezagunak; mota guztietako agintari, uniforme, bandera eta ikurrak...*

## Datu zehatzak

Olasagastik aspalditik zuen Kutxako fototekaren webgunearen berri eta ikusiak ere bazeuzkan argazki asko, *baina inoiz ez nuen guztiak ikusteko, alderatzeko... denborarik hartzen. Bat-batean, burubelarri jarri nintzen horretan eta hainbeste argazki bilatzeak txunditu egin ninduen, esan digu. Argazki horietako batzuk ikusiak izango dituzte oriotarrek, baina orain ikusteaz gain, haiei buruzko datuak ere jakin ahal izango dituzte: urtea, tokia, ospakizun edo gertakariaren nondik norakoak, bandera... Ahalegindu*

*naiz datu zehatz eta zuzenak jartzen, baina ziur nago egongo dela akatsik. Hori dela eta bilduma ikusi eta okerren bat dagoela konturatuz gero, jakin ezazue oso gustura egingo ditudala zuzenketak.*

Kutxako fototekan argazkiak urtez-urte sailkatuta badaude ere, urte bakoitzeko ekitaldiak, ospakizunak eta estropadak nahiko sakabanatuta aurkitu ditu Joxemari Olasagastik eta ez da erraza izan historiari jarraitzea. *Urtez urte sailkatu, argazki bakoitzari izen aproposa jarri eta lasai-lasai ikusteko, jasotzeko... aukera ematea izan da helburua.*

## Interneten ikusi eta jaitsi

Joxemari Olasagastiren bilduma ikusi nahi duenak interneteko helbide honetara jo beharko du: <https://picasaweb.google.com/arrauneanorio>. Jatorrizko argazkiak Kutxako fototekan daude: [http://www.kutxateka.com/index.php/Detail/Entity/Show/entity\\_id/2811](http://www.kutxateka.com/index.php/Detail/Entity/Show/entity_id/2811) helbidean.

Modu berean, eta nahi den argazkia deskargatzeko aukeraz gain, bilduma osoak jaisteko modua ere badago, eta horrela edonork jaso, gorde eta bereganatu dezake ondare izugarri hori.

# Nafarroako historiaren inguruko hitzaldi zikloa izango da maiatzean

*Nafarroa bizirik Orion taldeak antolatutako ekimena da eta Nabarraldekoak izango dira hizlariak. Udalak diruz lagundu du ekitaldia, aho batez hartutako erabakiz.*

*ak eta biolentziak zapuztu dutelako gure nortasuna aske garatzea.*

Urte berezia da 2012a Nafarroako historian. 500 urte beteko dira udan Albako dukeak, Gaztelaren izenean, Nafarroako Erresumaren konkista hasi zuenetik.

Horren harira, Orion talde bat elkartuz 2011ko bukaeran, *1512-2012 Nafarroa bizirik* ekimenaren baitan zerbait antolatu asmoz. Bilera batzuk egin ostean, mozio bat aurkeztu zioten Orioko Udalari, hainbat eskaera eginez. Martxo-

aren 27ko udalbatzarrean aho batez onartu ziren taldearen eskaerak; besteak beste, hauek: *konkista gogora ekartzeko ekitaldiei babesa ematea eta, ahal den neurrian, laguntzea; gaztelarren konkista salatzea, gaur egun ditugun hainbat arazo eta gatazkaren erantzulea delako; eta indarrez kendu ziguten orduko Nafarroaren pareko naziotasun askea aldarrikatzea nazioartean, gerrak, kolonizazio-*

## Hitzaldiak

Lau hitzaldi izango dira guztira, denak 19:30ean eta Kultur Etxean. Maiatzaren 7an, *Nafarroa, euskal estatuaren historia* hitzaldia emango du Beñi Agirrek; hilaren 10ean, *1200. Gipuzkoaren konkista* solasaldia gidatuko du Idoia Arrietak; maiatzaren 17an *Gazteluen suntsiket*a izango du hizketagai Joseba Asironek eta maiatzaren 24an *Independentziaren galera*, Angel Rekalderen saioarekin itxiko da zikloa.



Angel Rekalde eta Joseba Asiron izango dira hitzaldietan parte hartuko dutenetako bi. NABARRALDE

## LABUR

### Hezkuntza

#### Haurreskolako matrikulazioa

Maria Maestra haurreskolan matrikulatzeko epea zabalduko dute maiatzaren 2an eta 11ra bitartean egongo da izena emateko aukera. Zeretik bi urtera arteko haurrak matrikula daitezke datorren ikasturterako. Horretarako, Haurreskolara jo behar da, 09:30etik 11:00etara edo 15:00etatik 16:00etara. Zalantzarik izanez gero, berriz, 943 890 625 telefono zenbakira deitu.

### Aisialdia

#### Udan Txurumuskirekin begirale

Txurumuski hasi da udaleku irekiak antolatzen eta begirale lanetarako prest daudenei dei egiten die. Interesa dutenek Karkararen webgunean edo Orioko Kultur Etxean aurki dezakete izena emateko fitxa eta, bete ondoren, honako helbidera bidali beharko dute:

[txurumuski.orio@hotmail.com](mailto:txurumuski.orio@hotmail.com)

Ezinbestekoa da 16 urte beteta izatea eta euskaraz komunikatzeko gai izatea. Bestalde, Ametsa gaztelekuko lan-poltsa ere ireki dute eta nahikoa da izena emateko orri berean laukitxoa markatzea.

### Lana

#### Kanpina eta turismo bulegoa

Orioko Udalak kanpineko harreraren lan egiteko pertsona bat hartuko du ekainaren 1etik irailaren 30era eta turismo bulegoko langilea oporretan ordezkatzeko, urriaren 1etik 14ra. Deialdiari erantzuteko langabetua izan behar da eta bete beharreko gainontzeko baldintzak [www.orio-ra.com](http://www.orio-ra.com) webgunean daude. Curriculumak titulazioak behar bezala kreditatuz Udal bulegoetan aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era bitartean. Horretarako azken eguna maiatzaren 4a izango da.



AP-8tik ospitalerako bidea egingo du autobus zerbitzu berriak. KARKARA

# Euskotreneko hainbat autobus ospitaletatik barrena joango dira

Aldaketak egin ditu Euskotrenek autobus zerbitzuetan. Autobidetik joaten direnak Policlinican, Onkologikoan eta Donostia ospitalean geldituko dira; N-634tik doazen denak Urbiletik pasako dira.

Euskotreneko Urola Kostako autobus zerbitzuetan hainbat aldaketa izan dituzte, apirilaren erdian hasita. Geltoki eta ordutegietan moldaketak eginez, zerbitzua hobetzea izan dute asmoa. Aldaketek eragina izango dute autobusez bidaiatzen duten oriotarren eta, batez ere, ospitaletara joan nahi dutenek sumatuko dute onura.

Besteak beste, N-634 errepidetik Zumaia eta Donostia arteko bidea eta alde-rantzizkoa egiten duten autobus guztiak Urbil merkataritza-gunetik pasako dira. Ordutegia orain arteko bera izango da, baina badira aldaketa txiki batzuk harantzako autobusetan. Lehen 11:55ean, 14:55ean eta 16:55ean Donostiara bidean Orioko geltokitik pasatzen ziren autobusak, orain, bost minutu beranduago iritsiko dira. Hiriburutik Zumaiaira bitartekoek lehengoan jarraituko dute.

## Ospitaletatik

Berrikuntzarik nabarmenena Donostia-ra joateko ospitaletan barrena egingo den ibilbidea da. Zumaia eta Donostia arteko bidaietan autobusek hiriburura sartzeko bide berriak erabiliko dituzte. Izan ere, AP-8 autobidetik joaten diren autobusek Policlinica, Onkologikoa eta Donostia ospitalea pasa ondoren Pio XII kaletik sartu eta Antiguatik aterako dira Donostian ohiko geltokietatik pasata.

Autobidetik doan lehen autobusa 07:25ean aterako da Oriotik eta hortik aurrera 07:55etik 10:55era artekoak orduro. Ondoren 12:55ean, 13:55ean eta 14:25ean eskainiko dute zerbitzua eta, eten baten ondoren, 16:55etik 20:55era orduro. Azkena, berriz, 21:25ean izango da.

Donostiatik Oriora autobidetik datozenak 08:15etik 21:15era bitartean orduro abiatuko dira ospitaletatik, baina 12:15ean, 15:15ean eta 16:15ean ez dago zerbitzurik. Bestalde, badira autobus batzuk Pio XIItik ateratzen direnak: 08:05ean, 15:05ean eta 22:05ean.

## Aste bukaeretan mantendu

Larunbat, igande eta jaiegunetako zerbitzuen ordutegiak orain artekoak izango dira aurrerantzean ere: N-634tik Oriotik Donostiara 06:55etik 21:55era, orduro; eta Donostiatik Oriora 08:00etatik 22:00etara, horrez gain, 22:30ean beste autobus bat ateratzen da.

Larunbat gaueko autobusak Oriotik Donostiara 23:25etik 05:25era eta Donostiatik Oriora 00:00etatik 06:00etara izango dira orduro.

Interesatuak, aldaketa guztien berri honako helbideetan jaso ahal izango dute: [www.lurraldebus.net](http://www.lurraldebus.net) edo [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es).



Laura Arruti saskira jaurtitzen Azkoitian jokaturako lagunartekoan. F. GARATE

# Finalez final ibiliko dira maiatzean saskibaloiko neskek

Urtarrilean errendimendu mailako kadete neskek Euskal Ligarako igoera fasea jokatu zuten, eta orain infantil eta seniorren txanda da. Partaidetza mailakoak, ordea, aste honetan sar daitezke finalean.

Urte ona egiten ari dira Orioko neskek saskibaloian. Alde batetik, urtarrilean Euskal Ligarako igoera lortu zuten Orion jokaturako finalean Dan Lertxundik entrenatutako kadete neskek.

Apirilaren 21ean Ainhoa Fernandezek infantilek Ordizian jokatu zuten finalerdia irabazi eta, bide beretik, finala jokatu dute apirilaren 28an, Ordizian bertan, goizeko 11:30ean, etxeko taldearen aurka.

Ligan ordiziarren aurkako bi partidak galdu dituzten arren, lehia estua jokatze-ko prest daude oriotarrak. Lehenengo urtea dute probintziako saskibaloitxapelketan parte hartzen eta emaitza ezin hobea da neska horientzat.

Lauko finala ziur jokatu dute besteak Zarauzko senior neskek dira. Duela urte batzuetatik hona Aian bizi den Ainhoa Usandizaga zarauztarrak eta Elena del Hoyo oriotarrak jokatzen dute taldean, Eneko Landaren esanetara. Lauko finalera 12 garaipen eta 2 porroteko balan-

tzearekin pasako dira eta Eskoriatza izango dute aurkari finalerdian. Beste finalerdia Cafés Aitona eta Krafft Atlético San Sebastián donostiarren arteko derbia izango da. Finalerdiak maiatzaren 5ean, arratsaldeko 16:00etan eta 18:00etan izango dira. Finala, maiatzaren 6an jokatu da, goizeko 11:00etatik aurrera.

Partaidetza mailako kadete nesken taldeak ere, finalerako txartela eskuratzeko, partida bat irabaztea nahikoa du. Iraurgiaren aurka jokatu behar zuten apirilaren 21ean, baina partida atzeratu egin zen epaileak ez zirelako agertu.

Hala, apirilaren 28an jakingo dute maiatzaren 13ko finalean izango diren ala ez eta zein izango duten aurkari. Horretarako, Iraurgiaren aurka jokatu behar dute lehendabizi eta, apirilaren 28an bertan, arratsaldeko 16:00etan, Añorgaren aurka jokatu dute Karela kiroldegian liga erregularreko azken partida mailaz igo diren neskek.

## LABUR

### Eskola kirola

#### Plaieroak eta saskibaloia

Apirilaren 22an bukatu zen plaieroetako 2011-12 denboraldia. Helduetan ez zen Aia eta Orioko inor iritsi finalak jokatze- ra, baina eskola kirolean Aiako Lardizabal eskolako LH5. mailako neskek jokatu zuten finala. Partida Salleko talde zarauztarraren aurka jokatu zuten eta, gogotsu jardun bazuten ere, 2-1 galdu zuten finala. Udazkenean arte ez da plaierrorik izango. Dena dela, asteburu honetan saskibaloiko finalak izango dira LH5 eta LH6. mailako neska-mutilentzat. Ikastolako bi taldek jokatu dituzte finalerdiak ostiralean eta, irabaziz gero, igande goizean izango dute finala.

### Futbola

#### Etxean irabazita lasaitasuna

Oker handirik ezean, datorren urterako mailari eustea lortu dute Jaime Coladoren mutilek. Azken partida Zestoaren aurka jokatu zuten Mendibeltzen eta 3-0 irabazi zuten. Saikapeneko 9.ak dira 36 punturekin eta hiru jardunaldi baino ez dira geratzen. Jaitsiera postuak 8 puntutara dituzte oriotarrek eta bi puntu nahikoak dituzte jaitsiera saihesteko. Etxean partida bakarra geratzen zaie jokatze-ko.

### Arrauna

#### Hiru domina bateletan

Apirilaren 21ean eta 22an jokatu ziren Euskadiko batel txapelketak Legution. Lehen jardunaldian senior neskek zein mutilek txapelketa irabazteko aukera guztiak galdu zituzten, baita kadete mutilek ere. Baina hiru batel sartu zituen Orio Arraunketa Elkarteak bandera irabazteko lehian. Infantil mutilek brontzezko domina eskuratu zuten; infantil-kadete neskek zilarra eta neska jubeni- lek Euskadiko txapelkun direla ziurtatzen duen urrezko domina eta bandera ekarri zituzten Oriora. Hala, Espainiako txapelketak baino ez zaizkie geratzen batelen denboraldia bukatze-ko. Bestetik, zortzikoa eta trainerillak ere lanean ari dira. Zortzikoak Banyoleseko -Girona- Kataluniako 7. Nazioarteko Openean hartu zuen parte eta 5. izan zen, irabazlearengandik 8 segundora. Estropada berean Hondarribia sartu zitzaion 3 segundo aurretik Orioko zortzikoari. Trainerilletan bi jardunaldi jokatu dituzte senior neska-mutilek eta Orioko trainerillak 3. izan dira bi kategorietan jokaturako estropadetan. Datorrena maiatzaren 1ean, Pasaian, lehiatuko dute.





KARKARA

# “Euskal Herrira etortzean, badakigu zira ezin dugula etxean utzi”

## Alexis Gandía eta Cristóbal Sánchez

Seguros Bilbao taldeko txirrindulariak

22 urte ditu Cristóbal Sánchezek eta 18 urte Alexis Gandiak; Villenakoa -Alacant- eta Agullentekoa -Valentzia- dira hurrenez hurren. Seguros Bilbao taldean dabilta Santi Barrancoren esanetara, eta Orion pasatzen dituzte kontzentrazioko asteak.

### IKER GURRUTXAGA

#### Urrutitik etortzen zarete Oriora.

Cristóbal Sánchez: Kilometro asko dira, 900 ditugu egiteko. Alexis eta biok autoan elkarrekin etortzen gara eta hala gустurago egiten dugu bidea, eta horrela ez da hain gogorra. Gainera, luzerako etortzen gara, entrenatzeko denborarik eta ez galtzeko. Orain, esaterako, hilabeterako etorri gara. Gero bi aste etxera itzuliko eta, ondoren, berriz ere buelta.

#### Gainera, eguraldiak ez du laguntzen.

Alexis Gandía: Azken hilabeteetan ez digu eguraldi txarrik egin, eskertzeko

moduan gaude. Baina orain, ea nola moldatzen naizen. Egia esanda, euria ez dugu batere gustuko.

C.S.: Ni dagoeneko ohitu naiz, baina lehen urteetan ez hainbeste. Orain beti dakigu zirarekin irten beharra dagoela entrenatzera eta ezin dugula etxean ahaztuta utzi.

#### Nolako harrera izan duzue Orion?

A.G.: Jendeak badaki kanpoko txirrindulariak gaudela herrian. Supermerkatuara joaten garenean, esaterako, kutxan lanean ari denak azaltzen die gainontzekoei nor garen. Oso tratua ematen digute oriotarrek.

C.S.: Gainera, beti taldeko arroparekin irteten gara kalera eta hizketako modu-gatik ere laster esaten digute: *Zuek ez zarete hemengoak.*

#### Zenbaterainoko pisua duzue taldean?

C.S.: Nik laugarren urtea dut, eta taldeko nagusienetakoa naiz. Alexis bezalako gazteak guretzako egiten dute lan, guztia ematen dute, eta hori ardura handia da guretzat. Baina polita da. Gainera, Espainiako Kopako liderra naiz eta asko eskertzen da guretzat egiten duten lana.

A.G.: Gu gazteak gara eta lanerako gaude. Egunen batean tokatuko zait niretzako lanean arituko diren gazteagokin egotea taldean. Gaur egun nahiago dut 50. kilometroan erretiratu eta Cristóbal etapa irabazteko moduan dela jakitea, 7 minutura bukatzea baino.

#### Bidasoako itzulia Oriotik pasatuko da.

#### Berezia izango da, ezta?

C.S.: Bai, hala da. Maiatzaren 11n Orion hasi eta bukatuko da proba eta ahal den ondoena egiten saiatuko gara. Gainera, Errotako aldapa ere igoko dugu. Nik ez dut sekula egin itzuli hori. Guretzako berezia izango da Orioko etapa, baina baita itzulia bera ere. Taldearentzat garrantzitsua da hemen ondo aritzea.

#### Eta, etorkizunean?

C.S.: Krisiarekin-eta ez da erraza izango profesionaletera pasatzea, baina gu horretarako prestatzen gara eta ea zorterik badugun eta tartetxo bat egitea lortzen dugun nagusien tropelean.

A: Nik oso urrun ikusten dut bizitzako etapa hori eta, bitartean, gozatu eta ikasi egin nahi dut.

## “Zaldiak trostan egin behar du nahi duelako, ez gainekoak behartuta”

**Fatima Larrañaga**

Zaldikoa

Birraitonak zaldiekin izandako istorioak amonari entzunda sortu zitzaion Fatima Larrañagari jakin-mina. Umetan zaletasun gisa hasi zena, egin behar bihurtu da; ezin ditu *bere txikiak* baztertu eta Gipuzkoako *raid* txapelketan bigarren izan da *Foz* zaldiarekin.

### IRATI AGIRREAZALDEGI

Alarpen, Lazkaomendin, hasi zen zaldi gainean ibiltzen ikasten, eta han erabiltzen zuen *Siroko* zaldia oparitu zion aitak 12 urterekin. Gero, lehiaketetan hasi zen eta beste zaldi bat hartu zuen, hura zaharra zelako. Zaldi berria hasieran gustuko ez izan arren, erraz errekerperatzen zela esan zioten albaitariak eta horrek prestigioa ematen diola esanda hartu zuen. Beste behor izuti bat –berarekin izutzen ez dena– ere oparitu zioten eta Urdanetan ditu, bere *ume txikiak*.

#### **Gipuzkoako raid txapelketan bigarren izan zara. Noiz hasi zinen lehian?**

Bi urte inguru eta Gipuzkoako bietan bigarren izan naiz. Duela bi urte ere *Furia* zaldiarekin eta oraingoan, *Fozekin*, baina zaldia oso ongi portatu da.

#### **Espainiakoan parte hartuko duzu?**

Uztailean izango da Extremaduran eta, amonaren familiakoak han bizi direnez, nire bigarren etxea da, babestuta sentitzen naiz eta birraitona ere gertuago sentituko dut, lagunduko balit bezala. 120 kilometroko proba da eta orain arte egin dudan luzeenak 80 kilometro zitu. Hala ere, zaldi gainean pasa beharreko denbora ez zait inporta, nahi dudana da zaldiak eta biok proba amaitzea.

Lau fase izango ditu eta batetik bestera 30 minutuko tarteetan, zaldia errekerperatzeaz gain, kontrolak egiten dizkiete. Bihotza, hesteetako mugimendua, hankak... begiratu eta arazoren bat izanez gero, kalera. Zaldiak trostan egin behar du berak nahi duelako, ez gainekoak behartuta. Lasterketa ez da bukatzen helmugara iritsitakoan, kontrola pasatu eta albaitariak zoriondutakoan baizik.

#### **Beraz, zaldia ongi prestatu behar da.**

Hasieran, ez nekien zaldia nola entrenatu eta Bartzelonako albaitari bateko go-



MIGEL LARRAÑAGA ETA KARKARA

mendatu zidan astean 2-3 ordu ibiltzeko eta asteburuan serie bat egiteko. 10 kilometroko aldapan trostan ibili, zaldiaren pultsazioak 160tik igo ez daitezela neurtu, errekerperazioa ikusi eta, gero, aldapan behera oinez edo korrika joan, norberak nabaritzeko zenbat lan egiten duen zaldiak.

Horrez gain, egunero jaten eman behar zaie. Lasterketetako egunetan lau kilo pentsu jan behar dituzte eta orain, *Fozi*, lasterketarako erreserbak izan dituzan jateko gehiago ematen diot. Zaldia mugitzea komeni da eta asteburuetan entrenamendu luzeagoak egiten ditut. Irabazi, ez dakit irabaziko dudana, baina zaldia ongi prestatu behar da.

#### **Zaldia bai, eta zu?**

Espainiako txapelketa karrera gogorra denez, egunero prestaketa finkoa egin behar dut: korrika, oinez, zaldiarekin egunero 3-4 ordu eta asteburuetan 6-7.

#### **“Lasterketa kontrola pasatu eta albaitariak zoriondutakoan bukatzen da, ez helmugara iritsitakoan”**

“Heroinari zaldia zergatik esaten diote, ba? Zainetan sartzen delako eta mendean hartu. Niri ere barruraino sartu zait zaletasuna”

Bestalde, zaldikoak tituluak, *galopeak*, eduki behar ditu. Laugarren *galopera* arte lortzeko azterketa teoriko eta praktikoa egin behar dira. Gero, 80 kilometroko bi lasterketarekin, bosgarren *galopea* lor daiteke, nazioarteko bat eginda seigarrena eta nik, Espainiako lasterketa amaituz gero, zazpigarrena izango nuke. Guztira 10 dira eta guztiak lortu nahi nituzke, horrela jendeari eskolak emateko aukera izango nuke eta.

#### **Zaldian probatu nahi dutenei zer esan- go zenieke?**

Umeak probatzera animatuko nituzke, baina, benetan, lehiarako hartuz gero, gogorra ere bada. Probatu eta mundu horretan sartzen bazara zaila da ateratzea, harrapatu, lotu egiten du. Heroinari zaldia zergatik esaten diote, ba? Zainetan sartzen delako eta mendean hartu. Barruraino sartu dut zaletasuna nik.



Landabus proiektu pilotoa 2008an jarri zuten martxan Aian. KARKARA

## Autobus zerbitzu finkoa jarri dute Landabus ordezkatzeko

Astegunetan zazpi bidaia egingo dituzte autobusek eta aste bukaeretan bost. Oraingoan, Elkano eta Urdanetarako zerbitzurik izango ez bada ere, taxi-bus zerbitzua jartzea aztertzen ari dira.

2008tik, martxan zegoen Landabus proiektu pilotoa amaitu eta Lurraldebus-ekeskainiko du Aia, Orio eta Zarautz lotzen dituen autobus zerbitzua. Egitasmoa urtebeterako aurreikusi bazuten ere luzatu egin zuten gero eta, azken urteetan, Udalak milioi bat eurotik gora bideratu du proiektura, Aldundiaren eta beste hainbat erakunderen laguntzaz.

Landabus egitasmoaren emaitza ikusita hartu dute erabakia. 2007koari erreparatuta, komeni zen ikustea zerbitzuak hutsuneak zeuzkan edo benetan herritarrek autobusen beharrik bazuten ala ez. Hori zehaztuta, 2007ko zerbitzua hobetzea izan da asmoa. Orain egonkorra izango da eta isolatua izatetik, Gipuzkoako garraio publiko sisteman integratzera pasatuko da. Gainera, autobus gehiago izango dira.

Elkano eta Urdanetara ez dira autobusak joango, baina aztertzen ari dira taxi-bus zerbitzua jartzea. Bestalde, erabilzaileek, Landabusekin ez bezala, ez dute

aurrez eskaera egin beharko; izan ere, orain ordutegi finkoa izango da.

### Ordutegi berria

Zazpi bidaia egingo dituzte autobusek astegunetan Aiatik Oriora, lehenengoa eta azkena salbu, gero Zarautzera joateko: 07:00etan, 07:45ean, 09:00etan 14:00etan, 15:15ean (Pagoetatik) 17:00etan eta 20:15ean abiatuko dira.

Larunbatetan, 08:05ean, 09:05ean, 10:15ean, 15:25ean eta 20:30ean. Igande eta jai egunetan 08:05eko ez da izango, 12:05ean beste autobus bat aterako da Aiatik eta azkena 19:45ean izango da. Alderantzizko bidea eginez, lehena 08:40ean abiatuko da Zarautzitik, Pagoetan barrena Aiara joateko. Gainontzekoak Zarautzitik 09:40an, 12:40an, 19:45ean eta 21:05ean abiatuko dira Orion barrena Aiara joateko. Igandean 11:05ean beste autobus bat Oriotik pasatu gabe, Pagoetatik Aiara joango da eta iluntzekoak 19:10ean eta 20:25ean izango dira.

## LABUR

### Hezkuntza

#### Haurreskolako matrikulazioa

Kimu haurreskolan umeak matrikulatzeko aukera izango dute gurasoek maiatzaren 2tik 11ra bitartean. Zeretik bi urtera arteko haurren izena emateko haurreskolan bertan jaso daitezke inprimakiak. Gaur egun, 14 ume daude Aiako haurreskolan, baina datorren ikasturterako 3 baino ez dira geldituko; hala ere, 21 haurrentzat tokia dago.

### Lanpostua

#### Brigadarako bi langile udan

Udan sor daitezkeen lanetarako, Udal brigadarako bi lagun kontratatuko dituzte. Maiatzaren 14tik abuztuaren 14ra bitartekoa izango da lan denboraldia. Bete beharreko baldintzak honakoak dira: adin nagusia izatea, B1 gida baime-na edukitzea, Aian errodututa egotea eta langabezian egotea. Izena emateko udal bulegoetara jo behar da maiatzaren 4a baino lehen. Aukeraketa maiatzaren 11n izango da udaletxean, 12:00etan. Bestalde, igerilekua kudeatzeko baldintzak eta adjudikatzeko lehiaketaren arauak ere kaleratu dituzte. Eskaera hauek ere maiatzaren 4ko arratsaldeko hirurak bitartean aurkeztu behar dira udaletxean.

### Landare azoka

#### Itxiturako ateetan giltzarrapoak

Asteburuan, apirilaren 28 eta 29an, izango da 10. urtez Landare Berezien azoka Iturrarango lorategi botanikoan. Lorategia itxitura batekin inguratuta dago eta eta azoka egunetan, itxiturako burdinazko ateetan, giltzarrapoak jarriko dituzte-lakinarazi dute antolatzaileek. Beraz, oinezkoak ezingo dira hortik sartu. Honela bada, oinez zein autobusez gerturatzaren direnak Iturrarango bidegurutzetik sartu beharko dira. Azoka 10:00etatik 18:00etara bitartean egongo da irekita eta Aiako plazan ere izango dira ekintza osagarriak ordutegi berean.

### Aisialdia

#### Iturriozena toka

Iturriozena tabernakoek toka jarri dute herriko plazan eta aurrerantzean ere egunero jarriko dute. Euskal jolas honetan egurrezko kaxoi batean dagoen burdinazko txapa okerra jo behar da metalezko piezekin. Joko hau plazara aterata, helburua da herritarrek erabiltzea, umeek batez ere, betiko jolasak ezagutzeko eta horietan trebatzeko.

# Aste Santua

**K**aixo, irakurle, horrenbeste aldiz kritikatuak diren, baina, aldi berean, oso ongi etortzen diren jai horien inguruan hitz egitera natorkizu. Kasualitatez, aurten ere, eguraldi txarra izan dugu aste horietan; ez dakit zergatik gertatzen den, baina askotan egiten du euria Aste Santuan, ez zaizue iruditzen? Badira interneten, lehorteari aurre egiteko erremedio gisa Aste Santua luzatzea eskatzen duten *indibiduoak* ere, baina hori beste istorio bat da...

Izan dira edo egin dira elizkizun anitz ere, batzuk tradizio luzea dutenak, gainera, zeinak oraindik ez dituzten ikertu. Pentsatzen jarrita, ikerlari batentzat badago nahikoa lan, ezta? *Aian, Aste Santuan egiten diren tradiziozko elizkizu-*

*nak: jatorria eta garapena*, horra hor, izenburua ere asmatu diot ikerlanari, askotan, hastea izaten omen da zailena, ala ez? nahi duena has dadila, ez diot *copyright*-ik eskatuko je, je, je!

Jar zaitez orain, santuen lekuan, mesedez, niri tristura ematen didate-eta. Ongi da, ez dute bizirik; bai, egurrezko irudiak dira, batzuk arropa ederrekin apainduak. Hainbat emakumek orduak pasatzen dituzte arropa horiek garbitu, txukundu eta santuak atontzen –bai, emakume esan dut, ez baita gizonik jarduten lan horietan–. Eta gero, hara! Urte guztia gordeta pasa behar, egun batean kanpora atera eta paseotxo bat emanez beren soinekoak luzitzeko aukera dute-nean, euria ari duela eta, ez dela prozesiorik izango; eta berriz eguzki argirik

ikusi gabe lau hormen artera. Ez al da triste samarra?

Elizatik aparte, eta eguraldi txarra kenduta, natura ere ari zaigu bere alderdi ederrak erakusten. Bai, barkatu, polena kenduta, etxetik hasita nahikoa alergiko bagaude-eta. Basoak ari dira udaberriko soineko berdez janzten eta lore asko atera dira. Animalia askoren arraldia da orain, erabat aztoraturik dabilta eta egun argiz edozein zelaitan ikus daitezke. Ez esan hori gutxiri pasa zaigunik, mendira irtetea nahikoa da orkatz pare bat edo erbi gaztetxoren bat topatzeko.

Baina animaliak bakarrik dira ala baita gu ere? Zoratu egiten gara ditzosozko maitasunarekin ala sekula egingo ez genukeen zerbait egiteko aparteko ausardia ematen digu? Udaberria izango da.



## Txokoak eta jendea Manolo Urbietari omenaldi goxoa

Lardizabal eskolakoek omenaldi xumea, polita eta hunkigarria egin zioten Manolo Urbietari musikariari. Ustekabean harrapatu zuten. Herrian bazkaldu eta kalera atera zenean, han zeuden eskolako umeak, irakasleak, gurasoak eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak haren kankak abestuz eta haren ohorez usoak libratuz.



## LEHEN ERROMERIA EGUNEAN, ERRENTERIARA DANTZARA

**P**alotan dago aterata argazki hau. 1999ko uztailearen 17an, Errenteriako lehen erromeria egunera abiatu aurretik, jarri ziren dantzari denak argazkirako prest, eta hainbeste denbora pasatu ez denez, askok gogoan izango dituzte han egindako dantzak, baita gerora ere urtero egindakoak.

Lehenengo hartan Koro Sarasola eta Jose Migel Britt gonbidatu zituzten Errenteriatik dantzara. Izan ere, dantza solteko txapelketetan bikote modura parte hartutakoak ziren. Makina bat arin-arin eta fandango dantzatu zituzten, Errenterian ez ezik beste hainbat herritan egindako txapelketetan.

Lehian aritu ez arren, dantza gustuko zuten herriko lagunak haiekin joan ziren taldean

Errenteriarra egun horretan, eta hona hemen argazkian agertzen direnak.

Zutik, ezker-eskuin: Miren Josu Urkizu, Jose Migel Britt, Juanito Orella, Idoia Pagadizabal, Ana Belen Murua, Estela Rojas, Idoia San Sebastian, Onetsine Arrizabalaga, Mari Karmen Oliden, Jose Mari Sarasola, Dani Barrenetxea, Idoia Elizondo, Jose Mari Lizaso eta Koro Sarasola.

Eserita: Ainhoa Urkizu, Itziar Barrenetxea, Miren Salsamendi, Maitane Mujika, Nere Illaramendi, Ander Errasti, Lander Sarasola, Mila Oliden eta Lukene Lizaso.

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: KOROSARASOLA

**ARISTERRAZU**  
jatebxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**Automóviles**  
**ZARAUZ**

ZARAUZ ZEHARREZ, ORETAIA

100000 Litroak  
943 83 10 88

ZARAUZ. Tel. 943 13 13 50

**ARIDATA** modas

Eusko Gudariak 7 • Tel / Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO




# Orio eta Kataluniaren arteko lotura mantentzen



Orioko Herri Ikastolako ikasleek ohitura bihurtu dute bidaiia egitea urtero, **ikastolako ibilbideari amaiera emateko**. Bidaiarako dirua ateratzeko, irudimena erabili eta hainbat gauza saldu zituzten: autoentzako pegatinak, Baiaeren Egunean jartzeko sarea, patata-tortilla pintxoak...

**TESTUA: HERRI IKASTOLAKO  
DBH4KO IKASLEAK  
ARGAZKIAK: ALAZNE ARRUTI,  
OLATZ LIZASO ETA MIREIA ZINKUNEGI**



ztopo batzuk izan zituzten hasiera-hasieratik ikasleek. Lehenik eta behin, bidaiia finkatuta zutela, eta erreserba gehienak eginda, Andorako Caldea bainuetxean lekua hartze-

ko garaian, beste talde bat izango zela eta egun aproposa ez zela jakinarazi zieten. Beraz, beste aukera batzuen bila hasi ziren, badaezpada ere.

Hala ere, erreserba bere horretan geratu zen, berriz deitu eta arazorik ez zegoela jakinarazi zieten. Aste batzuk beranduago, greba orokorra deitu zuten sindikatuek martxoaren 29rako. Ikasleek Bartzelonara joan behar zuten egunerako, hain zuzen ere. Horrek, egunaren antolaketa aldatzera behartu zuen taldea: ostegun goiza beste leku baten pasatu beharko zuten eta, eguerdian, Bartzelona lasaiago egongo zen esperantzarekin, hirian sartzen ahaleginduko ziren. Ezusteko horiek gutxi ez balira, azken astean autobus enpresak jakinarazi zien literak dituen autobusa ezingo zutela erabili. Beraz, igande gauean abiatu beharrean, eguerdian atera ziren Oriotik Lleidarantz.

### **Martxoaren 25a, igandea**

Ordubiak eta erdietan, autobus geltokian geratu ziren eta, beti bezala, zain egon behar izan zuten denak elkartu arte. Konturatu orduko Vielhan -Lleida- zegoen taldea; pixka bat deskantsatu eta bidaiarekin segitu zuten Tavascanerantz -Lleida-. Handik pare bat ordura Tavascanen zeuden, baina aterpetxea herrian bertan ez zegoenez, *Ranroberretan* eta autobus txiki batean joan ziren, hemendik eraman zuten autobusak ezin baitzuen igo bide estu haietatik. 30 minutuan, zuriz jantzitako paradisu hartan zeuden. Aterpetxera iritsi, gelak nahi zuten moduan atondu eta bidaiatz gozaten hasi ziren Tavascango *La pleta del Prat* eski estazioan.



### Martxoaren 26a, astelehena

Tavascango aterpetxean esnatu ziren, elurrez inguratuta: eskiatzeko egun aproposa. Gosaritan indarrak hartu, eta berehala eskiak nahiz *snoweko* taulak hartuta, pistetara abiatu ziren. Hiru taldean banatu ziren: inoiz eskiatu gabeak, pixka bat eskiatu zutenak eta *snow* egin behar zutenak.

Gogotsu zeuden asko eta asko, egun hura noiz iritsiko zain denbora luzez egonak, nahiz eta denek ezin izan zuten nahi beste gozatu egunaz. Taldeko bik *snowboard*arekin zorte txarra izan zuten. Erorketen ondorioz, batek erradioa pitzatu zuen eta beste bati pitzadura arriskua diagnostikatu zioten pare bat ordura zegoen ospitalean.

Taxiaren zain beste horrenbeste egon behar izan zuten zaurituek eta, sekula iritsiko ez zirela zirudien arren, halako batean iritsi ziren aterpera bueltan: 18:30ean bata eta 00:30ean bestea; biak ere leher eginda. Gelakideek harrera beroa egin zieten eta, segidan, afaltzera jaitsi ziren min hartu zutenak. Hiruzpalau lagunak egin zieten konpainia eta horietako batek berriz afaldu zuen, badaezpada ere, gosetuko zen beldurrez. Hala ere, logeletara igo ondoren, ez zuten lorik egin; ikasleek ez baitzuten lo egiteko inentziorik, behin ikasketa bidaiara joango-eta. Irakasleek deskantsua ziurtatu nahi zuten, bazekitelako egun gogorrek izango zituztela atzetik. Ondorioz, gaua ikasleak oheratzeko borrokan pasa zuten Eneritzek, Imanolek eta Jonek.

### Martxoaren 27a, asteartea

Kostata, baina irakasleek lortu zuten ikasleak jaikitzea hurrengo egunean. Orduan, ordea, ezin izan ziren ikasleekin haserretu gosaltzera berandu iristeagatik, irakasleek ere lo hartu baitzuten.

Azkar gosalduta eta ikastaroekin jarraitu zuten. Eskiatzeko hasi berriak, lehenengo aldiz telesilan igo ziren eta, behin gorairitsita, *pertxak* erabiltzeko ahaleginak egin zituzten. Batzuk erraz ikasi zuten tresnaren erabilera, beste batzuen-



“Greba orokorra deitu zuten sindikatuek martxoaren 29rako. Ikasleek Bartzelonara joan behar zuten egunean, hain zuzen ere.

Horrek, egunaren antolaketa aldatzera behartu zuen taldea”

“Taldeko bik *snowboard*arekin zorte txarra izan zuten. Erorketen ondorioz, batek erradioa pitzatu zuen eta beste bati pitzadura arriskua diagnostikatu zioten”

“Astearte arratsaldean, kartetan ibili ondoren, erromeria egin zuten. Imanol irakasleak eskusoinua hartu eta taldeko ia denak aritu ziren kantari”

“Bainuetxeko araudia errespetatu ez zuenik ere izan zen, lagunak uretan zebiltzan bitartean, zaindariari konpainia egiteko gogoz agian”

“Momenturik hunkigarriena, manifestariak arraultza hegalaria jaurtitzeko zituzten bitartean, *Starbuck*seko gazta tarta, pastel eta edari zoragarriak dastatu zituzten ueña izan zen”

“Oriora iristen ari zirela, mikrofonoa martxan jarri zuten, eta irakasle eta zenbait ikasleen hitzek negarrak eta barreak nahastu zituzten”



tzat, aldiz, irakasle bat tartean –lasai Imanol, ez dugu-eta izenik emango!–, saiakera pare bat ere ez ziren nahikoak izan.

Irakasleak hasiberriekin nahiko lan ez bazuen, beste bat ia amildegian behera joan zitzaien. Baina, tartean jarri zen egurrezko etxetoak bera salbu uztea erabaki zuen. Mugimendu askoko goiz baten ostean, aterpetxera itzuli ziren, osorik eta salbu, gorputz guztian zeuzkaten ubeldurak alde batera utzita. Arratsaldean, kartetan ibili ondoren, erromeria egin zuten. Imanol irakasleak eskusoinua hartu eta taldeko ia denak ibili ziren kantari. Julen Alonso agurra dantzatzera ausartu zen adiskide batzuen kantuen laguntzarekin, aterpetxeko sukaldarien harridurarako. Tavascango azken eguna ondo aprobetxatu zuten.

### Martxoaren 28a, asteazkena

Bidaia osoko egun mugituena iritsi zitzaien gure neska-mutilei. Goiz jaiki, gosalduta eta aterpetxea hustu behar zuten. Aurreko egunean mailetak eginak zituzten arren, beti bezala, azken momentuko gauzak jasotzen ibili behar izan zuten.

Triste, mailetak autobus txikian sartu eta herrira jaitsi ziren, Tavascango kasakoan beste autobus bat hartzeko. 08:30ak aldera, rafting enpresara iritsi ziren, Sort herrira. Goizegi zenez, herrian bueltatxo bat emateko aukera izan zuten ikasleek, irakasleek ohiko kafetxo hartzen zuten bitartean. 09:00etarako, *La Rafting Company* aurrean ziren guztiak. *Hestekietan* sartu –neoprenoetan, alegia–, eskarpinak jantzi... eta antxoak latan bezala, autobusean, ibaiaren ertzerraino joan ziren.

Han, profesionalen gisan, monitoreek agindutako luzaketak egin eta beharrezko azalpenak entzun ondoren, uretaratu ziren. Hiru orduko jaitsieran, ausartek zubi batetik behera salto egiteko aukera izan zuten, eta jaitsiera bukatu ezin zuenik ere izan zen hotza zela-eta. Konpainiak aholkatutako jantokian bazkaldu ondoren, Andorrako Caldea bainue-





txera abiatu ziren; nekea kendu eta erlatzatera. Baina, aipatu bezala, ikastolan baldarrrik badenez, min hartuta zenetako batek ezin izan zuen sartu garbitasun araudiaren ondorioz. Bigarrenak benda kentzeko aukera zuenez, ez zuen arazorik izan. Hango araudia errespetatu ez zuenik ere izan zen, lagunak uretan zebiltzan bitartean, zaindariari konpainia egiteko gogoz, agian. 19:00etan bainuetxea utzi behar izan zuten, eta multa ekiditeko korrika eta presaka ibili. Aldarte lasai eta mantsoaz autobusera igo, La Seu D'Urgelleko La Salle ikastetxean afaldu eta lo egiteko.

### Martxoaren 29a, osteguna

Ikastetxe beldurgarri eta ilun hartan lo egin ondoren, DBH4ko ikasleak, Montserrateko monasteriora abiatu ziren. Han, goiza igaro eta bertako paisaia zoragarriak miretsi ondoren, Bartzelona alderako bidea hartu zuten. Autobusean bi ordu igaro eta gero, azkenean, Kataluniako hiriburura iritsi ziren.

Lehenik eta behin, ostatura jo zuten. Bertan, gelen banaketa egin, eta geletan kokatu ondoren, Bartzelona pixka bat ezagutzera joan ziren: Gaudiren eraikinak, Rambla, portua... Baina arratsaldeko momenturik hunkigarriena, *Starbuck*seko gazta tarta, pastel eta edari zoragarriak dastatu zituzten momentua izan zen, manifestariak arrautza hegala-riak jaurtitzen zituzten bitartean. Baten batek, gainera, susto ederra hartu zuen manifestarien petardoekin.

Ostatura itzultzean, bakoitza bere gelara joan zen dutxatzera eta gauean joan behar zuten diskotekarako egoki jantzera, nahiz eta batzuei horrela jantzi beharra ez gustatu. *Fresc & Co.* izeneko buffet batera joan ziren afaltzera, bertan pasta, haragi eta entsaladak nahi adina eta nahi bezala nahasteko aukera zegoen.

Afaldu ostean, ostatura bueltatu ziren. Han, Marco izeneko gizon handi batek Gaudiren artelan batzuk erakutsi ondoren, diskotekara eraman zituen; haien adineko jendeak sartzeko aukera izango

## BITXIKERIAK KONTATUZ...

**B**idaia guztietan bezala, honetan ere izan zituzten hainbat bitxikeria gure ikasleek. Hasteke, aterpetxera iristean, taldeko hainbatek arazoak izan zituzten maletak kargatu eta eskaileretaraino igotzeko bidean. 3 aldiz erori zenik ere izan zen -Olatz, guztiok, dakigu izotzaren erruz izan zela-.

Biharamunean, Anderrek pitzatua egin zuen eskubiko esku muturrean eta Andonik kolpetxo bat hartu zuen ezkerrekoan. Sudokuak egiten pasa behar izan zuten denbora: batak pentsatu eta besteak idatzi. Baina neska baldarrrik ere izan zen. Intzak lurrera erori eta *snow*-arekin begia belztu zuen eta Maitanek ere susto ederra hartu zuen. Ezin jakin zeinek hartu zuen susto handiagoa, ikusleek edo berak. Eskiatzen ari zela, pistako etxetxoaren kontra bete-betan egin baitzuen tupust. Etxetxoak geratu zuelako; bestela... amildegitik behera. Amildegia aipatzen ari garela, eskiatzen esperientzia zuen ile hori batek ere, istripua izan zuen. *Snow*-ean lehen aldia zuela, amildegian zintzilik geratu zen -begiralearen beso indartsuak probatzeko, agian?

Aterpetxeko azken gauean bereziki, Jon oso haserre ibili zen, lorik hartu ezinik, ikasleen *isiltasun*aren ondorioz. Hurrengo egunean *malaltxez* zegoela gela batera sartu eta oihuka hasi zen esnatzeko esanez, ikasle denak erdi beldurtuta geratu ziren; baina, segidan, Eneritz txaranga jotzen sartu zenean Jonen utzitako seriotasun guztia kendu zuen!

Aterpetxetik autobusera bidean Ikerri pokerreko maleta erori zitzaion elurretara eta han jardun zen fitxak banan-banan jasotzen -fitxak ondo zaindu behar dira-. Caldean, Mireia uretara txiklearekin sartu zen. Ahoa ireki eta bertan murgildu zitzaion arte, bere kolore berdea ikusgarria zen arren, galdu egin zuen.

Azkenik, bueltako autobusean zueleda, 20 bat minuturen faltan, ia denak negarrez hasi ziren hurrengo ikasturtean bakoitzak bere bidaia hasi behar duelako. Jon irakasle petralari ere, malko batzuk erori zitzaizkion. Zakarren bat sartuko zitzaion...



zuen batera. Nahiko azkar irten ziren diskotekatik ikasleak eta berehala *lotara* joan ziren ostatura.

### Martxoaren 30a, ostirala

*Sun and Moon* ostatua uzteko garaia iritsi zen. Goizeko 08:00ak aldera esnatu ziren -lo egiteko astia izan zutenak behintzat-. Maletekin Ramblatik zuzen, Kolonen estatua ingurutik pasa eta ostegunean autobusak utzitako lekuan elkartu ziren.

Maletak bertan utzi, eta bazkalorduan buffet batera joateko, Kolon estatuaren plazatxoan jarri zuten hitzordua. Goiza aurreko egunean ikusi ezin izan zituzten tokiak ikusten pasa zuten, irakasleak agurtu eta taldetxotan antolatuta. Batzuk arropa dendetara, besteak familiarantzako oroigarri bila. Futboleko kamiseten *regateo*an ibili zirenak ere baziren tartean.

Ordu baterako, lagun erraldoiaren ingurura bildu ziren guztiak. Aurreko egunean, Caldean, bainatu ezinda geratu zen adiskidea izandako jarrera bikaina saritzeko, oparitxo bat egitea otu zitzaien taldekoei: mutila *Barçako* jarraitzaile sutsua denez, ez zuten asko pentsatu beharrik izan: taldearen kamiseta *blaugrana* opari, bizkarrean Xaviren 6 zenbakia zuela. Kolonen plazaren erdian, borobilean jarri eta erdira sartu zuten eta orduan eman zioten goizean erositako oparia.

Ikuskizuna amaitu, eta buffetera abiatu ziren. Tripa bapo bete ondoren, autobusera hurbiltzen hasi ziren. Baina mutilen *begi onak*, taldetxo bat kamiseta preziatua aldatzera eraman zuen, halako mutil galantari S tamainako kamiseta ekartzea ere...

Bidaia momenturik hunkigarriena, hala ere, bueltako bidaian sortu zen. Oriora iristen ari zirela, mikrofonoa martxan jarri zuten, eta irakasleen eta zenbait ikasleren hitzek entzuleen negarrak eta barreak nahastu zituzten. Ikasbidaia amaitu zen; 16 urteetako ibilbidea bukatzen ari zaie.

# Boluntario izan nahi?

**A**steburuan Zarautzen izan nintzen *plaierotako* finalak ikusten eta, eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, giro polita sortu zen Munoa inguruan. Aurten ere Orio eta Aiako ordezkariak izan ditugu lehian neguan, baina Aiako Lardizabal eskolako 5. mailako neskek soilik lortu dute finalera iristea. Aiarrek ez zuten zortirik izan eta 2 eta 1 galdu zuten La Salleko A taldearen aurka. Hala ere, zorionak aiarrei finalean egindako lanarengatik. Hurrengoan izan beharko du!

Bestalde, Orioko Herri Ikastolako 5. mailako nesken eta mutilen taldeek eta 6. mailako nesken taldeak saria jaso zuten finalerdietara iristeagatik. Halaber, Orioko Herri Ikastolak ikastetxe onenaren saria jaso zuen, bada zerbait!

Gainerakoan, seniorretan ez da Orioko ordezkariarik izan finalean, talde orotarrik behintzat ez. Izan ere, jakin badaikit Nerea Uranga oriotarrak kopako finala irabazi zuela. Bejondeizula! Eta

seniorretan beste oriotar edo aiarren bat izan bada, barka dezala.

Hondartzan partiduei begira nengoe-la, hondartzako futbol txapelketa antolatzeke behar diren boluntarioekin gogoratu nintzen. Izan ere, askotan ohar-kabeen pasatzen badira ere, ezinbestekoa da pertsona horien lan ixila dena ongi irten dadin. Ez naiz hasiko hemen pertsona horiek zerrendatzen, ziur baten bat bidean ahaztuko zaidala eta, baina zorionak zuei ere!

Gero eta zailagoa da musu-truk lan egingo duen jendea aurkitzea, boluntarioak lortzea, alegia. Orioko Pilota El-

karte osatzen dutenek ere laguntza eskatu dute, aurrera atera nahi dituzten txapelketak behar bezala antolatzeko. Boluntarioak behar dituzte horiek ere. KARKARA ere boluntario talde batek sortu zuen duela ia 23 urte eta, oraindik ere, lan asko egiten dute horiek aldizkaria gure etxeetara txukun heldu dadin. Orain errelebo eske omen dabilta horiek ere.

Gero eta berekoiagoak gara, eta gure zillborrharen alde bakarririk egiten dugu lan, eta dirua tartean baldin badago, hobeto. Normalean, boluntario taldeak txikiak izaten dira eta kide horiek erre egiten dira, denbora luzean lan asko egiten dutelako. Testuinguru horretan are eta balio handiagoa du zuen lanak. Izugarritzko meritua duzue!

Gogoratu: *Denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuk dena eman behar izan ez dezaten.* Ea, bada, talde polit bat osatu eta boluntario talde horri merezi duen atsedena ematen diogun! Ni neu boluntario izateko prest!

**Gero eta zailagoa da musu-truk lan egingo duen jendea aurkitzea, boluntarioak lortzea, alegia**



**Zaragueta Eskola Orto**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: Or2137aa@hezkuntza.net

**SOLOZABAL**  
autoeskola



Eusko Gudari, 30-1, ezk  
telef: 943 83 08 12

**ARKAITZ**  
Taberna

Pintxoak,  
plater konbinatuak  
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALTEA, 1      TEL: 943 83 16 37

**URDAIRA**

**Sagardotegia**

Maiatzaren 5ean afaria  
DJ Larrarekin,  
menua 25€tan

Maiatzaren 6an  
debur aldizkaria eskaria



**Egin erreserba!**

Aginaga-Usurbil  
Tf: 943 372 691  
630 777 346

**PERTS ANAK**

A  
K  
O

M  
A  
Z

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

TEL: 943 13 25 01 MUGIKOTTA 600 70 52 27

**bodegas ERRASTI, S. L.**



Eskualderako banatzailea  
Zudugarai, Getariako txakolina  
Ilagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gallur: Señorio de Laurigala  
Gallur eta Ardanategi,  
Añabar-Tiriosako ardoak

Eusko Gudari, 46 • ORIO • 943 83 00 66 / 00 60 60 • E-posta: hauegimaila@erasti.net

**MIRANDA**  
SERVICIOS



gelma eta leño, eskulera...  
besta linea antolatzen  
egun jarritzen

Urdaneta bidea, 1 • 460 42 82 70 • ZARAUTZ

**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572083  
FAX: 943 571190  
Larenju@hotmail.es

INES ASEÑO  
IBAI GINDO 13  
20810 ORIO

# Oriotarrek kale egin ezetz?!...

**G**utxi dira munduan KARKARA bezalako aldizkari bat duten herriak. KARKARA ez zuen sortu Udalak, alderdi politiko batek edo herriko jauntxo taldeak. Hasserretu egiten gaitu aldian behin, baina KARKARA ez da propagandistikoa, ezta negozio bat ere.

Zu eta ni bezalako oriotar batzuk sortu zuten, gazte zirela. Bururatu eta egin: 23 urte daramatza KARKARAK ordituk guztion mesederako. Orain, krisiak eraso jo dio. Hasi dira KARKARAKOAK laguntza eske, eta hilabeteko epean hamar bat laguntzaile bakarrik lortu omen dituzte Aian eta Orion!... *Harrapazank!*

5.000 biztanle pasatxo ditu Oriok, beste 2.000 bat Aiak, eta gehien-gehienok irakurtzen -edo gutxienez gainbegiratzin- ditugu bi asteen behin KARKARAREN orrialdeak. Lorpen harrigarria da KARKARA. Ez dakit konturatzin garen. 3.100 ale banatzen dira hamabostero Orioko eta Aiako etxe guztietara. Hau da, *Diario Vascok*, *Garak* eta gainontzeko guztiek batuta baino askoz ere zabalpen handiagoa dauka KARKARAK Aian eta Orion.

Bertako albisteak, bertako herritarren gutunak eta iritziak, bertako gaztetxo, gazte, heldu eta aitona-amonon argazkiak. Orioko eta Aiako kirolari eta kirol taldeen inguruko albiste eta erreportajeak. Herriko gorabeherak, txokoak, baserriak, festak, jendea, elkarrizketak... Zenbat eta zenbat kontu dakizkigu KARKARARI esker? Zenbat kontu herriko jendearen ingurukoak?

Informazio horrek guztiak batu egiten gaitu komunitate gisa, eta herri-sentipena ere indartu egiten du gurean. Guztion artean idaz-

**Diario Vascok, Garak eta gainontzeko guztiek baino askoz ere zabalpen handiagoa dauka Karkarak Aian eta Orion**

ten ari garen historia jasotzen du KARKARAK, beste hedabideek sekula landuko ez lituzketenak argitaratuz. KARKARAK, gainera, arnasa ematen dio euskarari, erabilera eta baliagarritasuna, bi-biak. Eta euskaldunoi, duintasuna ez ezik, maila bat ere ematen digu.

Hitz potolotan esanda, KARKARA estrategikoa da Aian eta Orion. Batetik, guztion elkarbizitza erraztu eta aberasteko eta, bestetik, Aia eta Orio euskarazko arnasmune gisa sendotzeko. Gehitu horri kulturaren esparruan egiten duen ekarpena, herritar guztiei idazteko ematen dien aukera, bertan trebatzen diren herriko kazetariak...

Sekulako galera litzateke KARKARA ahultzen uztea, Zarautzarrek *Txaparro* aldizkaria hiltzen utzi zuten bezala...

Publizitate-sarrerak eta, batez ere, Jaurlaritzaren eta Aldundiaren diru-laguntzak beharra doaz, Udalarenak gora egin duen arren. 300 eta gutxi laguntzaile ditu KARKARAK, eta gauzak ondo bidean joateko, 500 laguntzaile izan behar lituzkete. KARKARAKOAK ez dira trebeak publizitate kontuetan, baina nik ezin dut sinistu oriotarrek eta aiarrek KARKARAREN alde egingo ez dutenik.

KARKARAREN orain arteko laguntzaile zartzen guztioi, eskerrik asko eta zorionak! Bejondeizuela, KARKARA posible egiten duzelako. Orioko eta Aiako gainontzeko 4.000 inguru herritar helduei, ordea, eskaera xume bat: mesedez eman 35 euro urtean, KARKARA gaur eta bihar posible izan dadin. Zer dira ba 35 euro urtean?...

Ez da nahikoa *amak ordaintzen du* esanda. Gazteok, xoxik gabe bazabiltzate, konbentzitu itzazue guraso, izeba-osaba edo aiton-amonak. Edo antolatu itzazue diru-bilketak herrian. Eta dagoeneko hain gazte ez zaretzenok, 29 urtetik gorako aiar eta oriotarrok, askatu ezazue pixkat poltsikoa, dedio! 35 euro gutxiagorekin ez zarete-eta pobrea go izango.

Ez dakit aiarrek nola erantzungo ote duten. Ez dut herri hori nirea bezain ondo ezagutzen. Laster jakingo dugu, ordea, nor den nor bi herriotan. Oriotarrek kale egin ezetz!...

**Nire honetan**  
Irati Agirreazaldegi

## Argirik gabe argi eta garbi

**A**rgia joan da. Konexio, kable... auskalo zerk egin duen eztanda. Ezer lortuko al dugu, ordea, errudunen bila joanda?

Kulpa guk ez ote dugu, agian? Ez dakigu argirik gabe bizitzen, nahiz eta horretara ohitu beharko genukeen ezarian-ezarian. Noizbait lortuko dugu horrekin pentsatzen jarri ez bagara ere aspaldian.

Dendetan ezin altxatu pertsiana, ordenagailuarekin aritzen garenok ezin egin lana eta arratsalde telebista aurrean pasa nahi duenari izorrratu diote plana.

Lanik egin ezin eta etxera. Bidean argindarra berriz bueltan etorriko ote da? Izan ere, batzuk ezin sartu garajera, igogailuan ere geratuko zen norbait ez gora ez behera.

Iritsi eta sukaldeko argia piztu da, baina luzerako izandog den, hori da nire duda. Gerturatu naizenean bitrozeramika ingurura, honek ere matxura, bata bestearen mende dagoen itxura.

Piztu da, bai, bonbila. Akatsa konpontzen ibili da norbait azkar bezain abila.

Ustez geltoki ondoko obretako kable batetik egin dute tira. Gaitzerdi hango lanak amaitzeko argiarekin izandako arazoak konpontzen bezain argi eta azkar ibiliko balira.

*Inorena ikusteko argitsu eta berea ikusteko itsu* omen gara, ea ba zerk argi egiten digun argindarra joaten bada.

**azkue**  
karrozeria



Ubagun Industrialdea, 7 20809 Aia-Orio  
T/fax: 943 83 51 85 Carrocenasazkue@hotmail.com

**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**



INDUSTRIAL - BAIKOIAT

Santiago Ouzoa - 18 postakutxa  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: mmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**

**R** ISO 9000

Estorako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

Iliz gaxandega

# MARIJO

Neska eta miltientzat



Eusko Gudari, 8 -bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

Carmen eta Txomin  
ARRAZKAGAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

# Gabon

TABERNA

plater *karrikas* zapintxoak

Tfnos: 943 83 06 09

LORETXU JATEKOA



Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

# LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Fabrika Agote Industrialek Agote, 5 48721 Zorua	Ikasturteak Ibai Praxialde, 1 20800 Zamara	Trakuntzak Añu Lertxundi, 21 20810 Oriu Tel. 943 83 49 99
--	--	--



## GaleBask S.L.

Berrikuntzak  
Gremioen arteko koordinazioa

638 610 349  
Tel./Fax: 943 134 717  
galebask@hotmail.com

www.galebask.com  
Kale Nagusia, 2 -bajo  
20810 ORIO

Igo zaitez haize berrietara!

# Galema I

943890416-677/49934  
galema.oriu@hotmail.com

BERME Aholkularitza S.L.  
Zaraga 912 Inga Aranzastegi

- KONTABILITATE AHOULKARITZA
- ENKARGUEN KONTROLA
- ENKARGUEN JORRALA
- ENKARGUEN KONTROLATIA
- ENKARGUEN KONTROLATIA
- ENKARGUEN KONTROLATIA

943 83 09 23  
943 83 09 23  
943 83 09 23



# LUXARBE

igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik agiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 83 59 00

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorra

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Alderoko zerbitzuak  
\* Belatorio gelak  
\* Korcjak, eskolak, tranbitzioak...

Araba kalea, 35 Zarautz  
Tel: 943 83 48 37 / Fax: 943 83 48 48  
e-mail: harnesp@harnespil.net

"JUAN LARRAZPU" ERAIKUNTZAK, S.L.

Baserrietako igeltseritza eta egurrezko esturturetan aditua

Etxeen berrikuntzak:

- fatxadak
- sukaldeak
- telatuak
- bainu gelak...

Tf: 665 718 966 (Jon Arruti)



ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu



943 83 09 84 alta lertxundi, 36 ORIO

# BARAKA

esjelo burria

Ordupeñak  
Etxeak  
Etxe berrak  
Etxe berrak

945 15 15 18  
Aitor

# RAMIRO

argazkiak

www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68  
943 83 10 48

INDO

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

## Gaia emanda Jaunartzea egin ala ez?

*Jaunartzeen hilabetea dator. Garai batean garrantzi handiko ospakizuna zen jaunartzea gure herrietan; baina orain zalantzan jartzen dute askok egin behar ote den ala ez*

### Azkenengo jaunartzea?

**H**iru dira sakramentuen artean *kristau-sar-bideko* sakramentuak deiturikoak: Bataioa, Sendotza eta Eukaristia. Kristautasunaren hasiera-hasieran helduek hartzen zuten Bataioa, fedearen berri izan eta hala erabakitzen zutenean; baina laster hasi ziren heldu horiek beren seme-alabak ere bataiatzen. Sendotza edo Konfirmazioa Bataioaren ondoren hartu ohi zuten, lehenengo Eukaristiaren aurretik eta halaxe ezagutu zuten gure gurasoek ere. Lehenengo Eukaristia, berriz, haurrak izanik Bataioa hartu zutenek 12 urterekin egiten zuten, 1910ean Pio X.ak 7 urtetara aurreratu zuen arte. Aurrerapen horren ondorio da, gure herrietan 7 urterekin Komunioa egin zuten haurrek gero 12rekin berriz "Komunio handia" zeritzana egitea. Vatikanoko II. kontzilioaren ondoren atzeratu zen lehen Jaunartzea edo Komunioa bederatzi urtetara eta Sendotza 16-18ra.

Baina sarreratxo hau egin da erantzun diezaiogun honako galderari: zergatik egiten du 9 urteko haur batek lehenengo Jaunartzea?

Opariak jasoko dituelako esango du norbaitek... Nik etxe bakoitzean zer opari edo

zer festa izango den ez dakit, eta jakiten saiatuko banintz diktadore edo inposatzaile naizela esango luke hamai-kak, seguru! Nik gauza bakarra esan dezaket: gurasoek hala erabakita eta eskatuta haur talde bati gure fedearen berri ematen saiatzen gara. Jesu Kristoren jarraitzaile izanik eta Haren erara bizitzeko saiatuz zorionsu izan gintezkeela eta bizitza honetan asma dezakegula uste dugulako... Bera gureganatzea eta Berarekin bat egitea da,

**ZIA**

nolabait esateko Eukaristian parte hartzea... Gu horretan saiatzen gara.

Nik nahiago dudala haurrak soilago edo kalez joatea? Nik egokiago ikusiko nukeela era apalagoan ospatzea eta opari-kontuak ekiditea? Bada, bai. Baina ez dago nire esku etxe bakoitzean gertatzen dena.

Gauza bat argi dago. Haurrak fedean hezi edo ez gurasoen erabakia izan behar duela, nire iritziz. Errespetagarria aukera bat zein bestea. Niri tristeza haurrari galdetzea iruditzen zait. Mila erabaki hartzen dituzte gurasoek haurren izenean. Eta zergatik hainbeste demokrazia esperientzia bat eskualdatzeko orduan? Heldua denean, hartuko du gurasoek irakatsi dioten ona eta baztertuko du balio ez diona. Ez al dute, bada, hori egin hainbestek inolako traumarik gabe?

**Unai Manterola**

Apaiza

### Aitarenean batean

**N**ik beti pentsatu dut komunioa eta halakoak nire iritzia entzun gabe erabaki zutela gurasoek egin behar nituela, eta errespetagarria da. Nik, berriz, guztiz bestaldera pentsatzen dut. Nire pentsamenduan ez da sartzen seme-ari edo alabari eginaraztea berak jakin gabe zertan ari den. Aukera hori beti hor izango du eta, adina duenean, hala pentsatzen badu, oso ondo egingo du bide hori aukeratuta. Umetan bataiatu ninduten, komunioa egin nuen eta egia da elizatik ezkondu nintzela. Baina gaur egun ez nintzateke ezkonduko. Umeak ere bataiatu genituen; baina, bai kanpokoekiko baita nirekiko ere, hipokrita samarrak izanda, gainera.

Beti pentsatzen dugu zer esango dute aitona-amonek, beste gurasoek... baina emazteak eta biok oraingoan, erabaki hori hartu genuen. Guk argi dugu ez dugula horrela pentsatzen eta ez diogula besteiei begiratu behar.

Gure umeak normal-normal hartu zuen gurasoen erabakia. Esan genion ez genuela sinisten elizak predikatzen duen horretan. Bagenuen beldur eta kezka pixka bat eskolan-eta gertatu zitekeena-rekin; semea baztertuko ote zuten beldur ginen. Baina, irakasleekin-eta hitz egin ge-

nuen, eta gureaz gain hiruzpalau ikaskidek ere bide bera hartu zuten. Gainera, atzetik badatoz gehiago.

Behin, Unai apaizarekin hizketan aritu zen emaztea gaiaren gainean eta Zorionek argi esan zion gure semeak ez zuela komuniorik egingo. Hark erabakia errespetagarria zela esan zigun eta oso ongi portatu zen.

Beste kezka opariaren kontuarekin izan genuen. Arazoa hori baldin bazen, irtenbidea ere ez zela zaila seguru geunden. Asteburu bat hartu, aspalditik ginen Port Aventura joateko goz, eta aukera hori baliatu genuen bidaiara egiteko.

Semea ez da sekula izan elizkoia, baina elizara eramantzen berak nahi izan duenean. Esaterako, hileta elizkizun batera joateko eskatu zigun, eta eramantzen genuen. Ni ere joaten naiz elizara, ez elizkoia naizelako, baizik eta hil denari errespetua zor diodalako. Meskitan izango bazen ekitaldi erlijiosoa, bada, hara joango nintzatekeen bezala. Ezin dut esan ateoan naitzenik, zerbait dagoela izan daiteke. Egunean eguneko bizitzaren duen pertsona naiz.

Elizako oroitzapen oso onak ditut, don Andres eta don Manuel nirekin oso ongi portatu ziren, eta ez dut beste batzuek duten gorrotorik. Ezin dut izan. Baina seme-ari erabakia bere esku uztea dela iruditzen zait bidezkoena.

**BOGA**

**Iñigo Tapia**

Gurasoa



Harribil dantza taldeak ikuskizun berria estreinatu zuen Karelan. KARKARA

## Koloreak dantzan

### Kritika Argi-Ilun

**Dantza ikuskizuna.** Apirilaren 21ean, Karela kiroldegian, Harribil dantza taldeko 16 dantzarik eskainitakoa.

**K**arela kiroldegia guztiz betetzea lortu zuen Harribil dantza talde gazteak larunbatean. Hamasei dantzarik, 15-22 urte bitartekoak, hamasei dantza eskaini zizkiguten, zein baino zein landuagoak. Publikoa emanaldia ikusteko gosez zegoen, eta horrelaxe adierazi zuen, seigarren dantzatik aurrera, erritmoa jarraitzen zuten txalo sendo eta gogotsuek lagundu baitzituzten dantzariak.

Beren janzkera dotoreekin, lanaren izenburua guztiz borobiltzea lortu zuten, koloreen arteko borroka adieraziz. Aukeratutako musika ere guztiz egokia izan zen, baita dantzariak transmititu zuten segurtasuna ere, guztiek jakin baitzuten momentu bakoitzean non egon eta zer egin behar zuten, eta horrek gustua ematen du.

Dantza eta dantza arteko isiluneez hausnarketarako tartea eskaintzen bazuten ere, zenbait momentutan luzezia zenaren sentsazioa utzi zidan emanaldiak. Argiek ere ez zuten dantzaren bizitasun guztia irudikatzea lortu, eta zenbaitetan oholtza ilunegi agertzen zen. Hala ere, han elkartu ginenon bihotzak dantzan jartzeaz

gain, hunkitu ere egin ginen, dantza solteekin eta pianoz lagundutako kantuekin.

Horren guztiaren emaitza, dantzariak ikuskizunaren amaieran jaso zuten 4 minutuko txalo zaparrada, benetan beroa eta sentimenduz betea.

Oriok herritik eta herrirako lan egiten duten gazte talde ugari ditu eta Harribil da horietako bat. Gazte mantentzen den Harribil dantza taldeak urteetan eutsi behar dio ilusio, gogo eta indar horri, *adreibuz adreibu, horma eder eta sendoa eraikitzeko.*

Zorionak lan taldean parte hartu duzuen guztioi. Merezi izan du!

ANDERRASTI

**Ikasleak idazle**  
June Arruti

## Berriz eskolara

**A**ste Santua pasa da eta berriro eskolara etortzea tokatzen zaigu. Eguraldi txarra egin du; baina, hala ere, ondo pasa ditut oporrak eskolarik gabe. Aurtent, bi egunetan, apirilaren 12an eta 13an, Orioko frontoira puzgarriak ekarri dituzte. Bi egun horietan han egon ginen jolasten denbora guztian. Egun gehiagotan ere, jarri beharko lituzkete,



edo jokoak antolatu umeez parte hartzeko. Oso gustura ibili naiz Orion kanpora joan gabe!

Hortik gutxira berriz ere eskolara etorri gara, baina ez pena handiz, eguraldi txarra egin du eta gutxi atera naiz lagunekin. Egun horietan aspertu egiten naiz. Alde onak eta txarrak ditu oporrak bukatzeak. Onak, lagunekin batera egoten zarela; eta txarrak, berriz ere goiz jaiki beharra eta ohera garaiz joan.

**Egun gehiagotan ere jarri beharko lituzkete puzgarriak, edo jokoak antolatu umeez parte hartzeko. Oso gustura ibili naiz Orion kanpora joan gabe!**



**ITSASADARRA, S. L.**  
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria  
finika administratzailea  
gestoria  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 69 40 29 Fax 943 63 54 94 itsasadarra@itsasadarra.com  
Ibai Otxo 4. beheaz. 20810 Otxo

» HANDIK ETA HEMENDIK



“Ez dago etxearen edo pentsioaren inguruan eztabaidatu beharrik. Sarritan haurra izan ohi da hori guztia sufritzen duena, eta, beraz, sufrimendu hori saihesten da. Umea ez da gatazka horretan murgiltzen”

“Liskarra batzuetan nahita bilatzen dute, eta askok tratu txarren salaketa faltsuak jartzen dituzte. Hori ez da inorentzat egokia”

**Joseba Urbieta**, zaintza partekatua lortzeko gose greba egin du, Urola Kostako Hitza, apirilaren 24a.

» OSPAKIZUNA



# 1956-57an jaiotakoen afaria

Udaberrian, Orion eta inguruko herrietan, kintoen, urte berean jaiotakoen edo komunioa elkarrekin egin zutenen afari eta bazkariak egiteko ohitura dago. Aurten ere jarri da martxan gisa honetako ospakizunen errota, eta argazkian ikusi daitezke 1956 eta 1957an jaiotakoek apirilaren 21ean, Sarasua jatetxean, egindako afarian juntatu zirenak. Beti bezala, aldarte onean igaro zuten gaua, irudian ikusi daitekeenez.

» ZORIONAKI!

## Eskola kiroleko partaideei

Urte guztian lan izugarria egiten duen kolektiboa da eskola kirolaren inguruan aritzen dena. Boluntario lan asko pilotzen da jarduera honen inguruan: entrenatzaileak, gurasoak, antolatzaileak...

Asteburu honetan emango zaio bukaera eskola kiroleko jarduerari. Berriz ere, arrakastatsua izan da Aian eta Orion, eta hori posible egin duten guztiei gure zorionik beroena eman nahi diegu.

Etorkizunean ere beharrezkoa izango da eskola kirola haurren aisialdi eta heziketan, eta horretarako boluntarioak ere beharko dira zalantzarik gabe. Beraz, ez ahaztu ikastetxeek eskertuko dutela zuen laguntza.

**GARMENDIA**  
 INMOBILIARIA - AROKALARIETZA - ASURUAK  
 Ibai Ordo, 1  
 Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 192 941

**Goizeko**  
 KAFETEGIA  
 ☎ 943 83 28 55  
 Aita Lantxandri, 33. Sarrera - ORIO  
 Autobus parada ondoan

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**  
 24 Orduko Zerbitzua  
 Javier Iglesias Fernández  
 637 723 308  
 iglesiasarraileak@igleas.es  
**ZOBIO ORIO**  
 - ATAKA BIKITZIMU DITUAKI  
 - SARRAILA-IBILIMUO ALDARAKTA  
 - ATAKA ETXEO MALGURIKO ALDARAKTA  
 - KOMUNITATEBETIZAKO ZERBITZUA

**LURDES**  
 ARRAZBEGIA  
  
 Euzko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

*Lizaso*  
 dekorazioa  
  
 Euzko Gudari, 48  
 Tel. 943 82 00 84 - Fax: 943 44 87 84

943 83 09 86  
**KOASTA**  
 Wifi zerbitzua  
 Kopak, gau giro apertu...

**KOLON TXIKI**  
 Herriko Enparantza, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44



1936an batzuek zubia bota zuten; 1980an, artean, batzuek eta besteek elkar hiltzen segitzen zuten. ARTXIBOA

# Zubipeko hilketa

## Oroimenaren kutxa

L arunbata zen 1980ko apirilaren 6a, Orioko sei lagun gazte, hiru bikote, Aristerrazun afaldu ondoren, herriko Txirla diskotekan zeuden. Haietako bi, haurdun. Gauerdia pasatxo, guardia zibil bat sartu zen, kale jantzian, han zeuden beste guardia zibil batzuegana inguratu eta esan zien orduantxe bertan haien kide bat hil zutela tiroz ondoko tabernan. Berehala, zalaparta handia sortu zen han eta guardia zibilak, pistola eskuan, korrika abiatu ziren hilketa lekura. Haurdunetako bat, sustoarekin, komunean babestu zen. Gero, Txirlatik atera eta,

Bihotzaren aurre aldean zegoen tentsio-giro izugarria saihestearren, Dikeko aldapa igo eta Goiko Kaletik barrena joan ziren etxera. Handik gutxira, Bikamiota aldeko etxetik, tiroak entzun zituzten, Txurrukako kanpamendutik zetozen, orduan han bizi ziren guardia zibilek eginak ziren; seguru asko, hilketak sortutako amorrua kanporatzeko.

Hilabetera, maiatzean, neska haietako bat erditu eta neskatxa bat jaio zen. Ekainean, beste haurdunak mutiko bat izan zuen. Uztailaren 13an, hiru hilabete lehenago Txirlan zeuden sei gazteak Altxerri jatetxera zihoazen oinez, ordu biak aldera, mutikoaren bataioa ospatzera. Sekulako zalaparta topatu zuten bertan. Minutu gutxi ba-

tzuk lehenago, ETaren komando batek bi guardia zibil hil zituen: Francisco Gomez eta Aurelio Navio. Erasoan ETako bi kide ere hil ziren: Inazio Gabilondo eta Carlos Lucio. Guardia zibilak Zingira kanpina zegoen ingurutik zetozen, hiru jeep-etan. Han, garai hartan, dinamita gordetzeko bolborategia zegoen, guardia zibilen zaintzapean. Handik zetozela, trenaren zubipetik pasatzerakoan, hango postean atzealdean ezkutatuta zeuden etarren erasoajaso zuten, tiroka.

Gizakiok Altxerriko kobazuloan bizi ginen garaitik askorik aurreratu gabe, artean, gau beltzeko amesgaiztoan ginen, elkar hiltzen.

| IÑAKI ITURAIN |

## » JAIOTAKOAK

- Irati Manterola Garcia, Orion, apirilaren 11n.
- Julen Tena Rubio, Orion, apirilaren 11n.
- Rehan Mohammad Akhtar, Orion, apirilaren 2an.
- Selene Hernández Iradi, Orion, martxoaren 28an.
- Aritz Elgarresta Agirresarobe, Orion, martxoaren 22an.

## » EZKONDUTAKOAK

- Arantxa Manterola Lertxundi eta Ibon Etxeberria Idiakez, Orion, apirilaren 14an
- Alex Johan Henao Arteaga eta Ana Mariela Sánchez, Orion, apirilaren 7an.
- Claudia Chackelson Lurner eta Jose Manuel Torres Martínez, Orion, apirilaren 3an.

## » HILDAKOAK

- Inazia Berasategi Illarramendi, Aian, apirilaren 23an, 85 urte.
- Manuel Arruti Aizpurua, Orion, apirilaren 20an, 95 urte.
- Jesus Arruti Orbeagozo, Orion, apirilaren 19an, 53 urte.

.....

.. Eskela edo ..

.. urteurreneko ..

.. gogoangarria ..

.. KARKARAN jarri nahi ..

.. baduzu, deitu gure ..

.. telefonora: ..

.. **943 83 15 27** ..

.....

**Oreka energetikoa**  
**Bachen loreak**

Indusiarak, irabazleak, orotara adierazten duten erabilerak

**utzi alde batera**  
**emozio negatiboak**

Ikasleak irabazteko erabilerak

Ikasleak irabazteko erabilerak

Ikasleak irabazteko erabilerak

Tel: 555 726291

**UTZIAR**

**kirolak**

Tel. 943 83 31 03

**Joana Murgiondo**  
 Asesurri-agentzia

**ASEGIURUA**

Abeslari, 4-2. esk.  
 Tfnoa: 943 13 46 07

**iñaki argazkiak**  
**caperochipi**

ezkontzako asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak  
 659378751  
 ikapero@ikapero.com



# “Norberak ez badu sinisten, gure terapia eta teknikek ez dute balio”

## Amaia Gozategi

Mandalara taldeko kidea

Tarota, astrologia eta horrelako gaiekiko jakin-minak eraman zuen Amaia Gozategik Mandalara taldera. Mandalekin, marrazki terapeutikoekin hasi eta gaur egun askotariko hitzaldi eta ikastaroak antolatzen dituzte, barne ezagutza lantzeko gehienak.

### IRATIAGIRREAZALDEGI

Bizitzako galdera edo egoerentzat erantzunen bila ari dira Mandalara taldeko kideak; bizitzako egoera horien aurrean hobeto funtzionatzeko erremintak ikasten eta bakoitzarentzat egokiena apartatzen. Amaia Gozategik Mandalara taldearen nondik norakoak azaldu dizkigu.

#### **Mandaletatik hasi eta gerora ikastaro asko egin duzue. Nolakoak izan dira?**

Jendeak barruan zeuzkanak askatzeko beharra zuela ikusita, meditazio saioak antolatu genituen esperientziak partekatu eta lasaitzeko. Tarot ikastaroa eta Bach loreena –usainen bidezko terapia– egin genituen eta, orain, astero izaten dira astrologia, tarot, mandala eta meditazio saioak. Badira ikastaro bereziak ere: Chi kung eta energiei buruzkoa.

#### **Zenbat jendek hartzen du parte?**

Hitzaldietara, batez beste, 40 lagun etortzen dira eta hori ikaragarria da Orioz bezalako herri batean. Ez dago parte hartzaileen perfil zehatzik; izan litezke 65 urteko erretiratua, 50eko etxeandrea, 40ko enpresaria, 20ko ikaslea... baina, guztiek dute gai horiekiko jakin-mina. Ez dago adin, ideologia politiko, sexu, hizkuntza... mugarik, talde irekia da. Izan ere, pertsona batek barruan ondoeza sentitzen duenean, egoera horri buelta emateko nahiak ekartzen du taldera. Taldeak klasifikatzeko joera dugu eta guk nahi dugu jendeak, horrelakorik pentsatu gabe, ikastaroak probatzea. Orain arte pozik gaude herrian erantzun ona dagoelako, eta gerturatzen den jendeak aldaketak nabaritzen dituelako, eta bide horretan jarraitzen duelako.

#### **Zein da arrazoia ikastaro eta hitzaldiek hainbeste jende erakartzeko?**

Jendeak galdera asko ditu eta erantzunaren bila ari da. *Bizitzan leku batetik joan eta beti paretaren kontra jotzen dut, zergatik? Zergatik daude familian ziklikoak diren egoera gogorrak?* galdetzen dute; *shock* egoera bat izan eta atera nahi dutenak daude; edo depresioa dutenak eta pastillak hartzeaz nazkatu direnak... Erabilitako teknikak ez zaizkio baliagarri izan, eta gurekin beste terapia batzuk probatu dituzte barreneko egonezina ateratzeko. Gehienek aldaketa sumatu dute: hobeto lo egiten dute, emozioak ateratzen dituzte... Hala ere, norberak sinisten ez badu, teknikek ez dute balio.

#### **“Gure taldea irekia da. Pertsona batek barruan ondoeza sentitzen duenean, egoera horri buelta emateko nahiak ekartzen du taldera”**

“Astrologia, numerologia edo tarotak karga magikoa dute eta telebistako igarle eta astrologoek ematen dieten ikuspegia gure kalterako da”

#### **Astrologia, numerologia, tarota... sineskeriatzat hartzen dira.**

Gauza hauek karga magikoa dute eta jendea, beldur pixka batekin gerturatzen den arren, ohartzen da ez dela hainbesterako. Teknika horien erabilera gehienetan iragarpenei lotua izan da eta telebistako igarle eta astrologoek horretara garamatzate. Telebistak ikuspuntu zehatz bat ematen du gai hauei buruz eta hori gure kalterako da. Teknika horiek erabil daitezke loteria tokatuko zaigun edo ezkonduko ote garen jakiteko, baina Mandalaren norbera kezkatzen duen egoera bat konpontzeko edo bideratzeko erreminta gisa erabiltzen ditugu.

#### **Zein beste ikastaro egingo dituzue?**

Energia ikastaroetan oinarritzko 6 maila daude eta Orion bigarreanean gaude. Euskal Herrian horrelako ikastaroak antolatu dituen lehen taldea da gurea, eta irailean beste bat izango da. Chi kung ikastaroaren harrera ikusita beste bat ere egingo dugu. Pendulari buruzko saio bat ere egitekoak gara, baina osasunari zuzenduta eta ez sorginkeria eta iragarpenetarako.



KARKARA





## Erromeriak Aristerrazun

Erromeria giroak hartzen du igande arratsaldeetan Aiako Andatza auzoko Aristerrazu plaza. Datozen bi igandeetarako ere egin dute deia trikitixa zaleentzako. Apirilaren 29an Astiazaran II, Izer, Mutriku eta Lutxurdio arituko dira soinu txiki eta panderoekin. Maiatzaren 6an, berriz, Eneko Etxabe, Oihana Irastorza, David Etura eta Maria Soriazuk osatutako Bide batez taldearen txanda izango da. 18:30etik 21:30era arituko dira.

eta 27an, Brasil. 19:00etan, Toki Alai elkartearen.

### Bertsolaritza

■ Maiatzaren 11n, Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketako kanporaketa. Idatzizkoa: 15:00ean, Ikastolan. Batebetea: 16:00etan, Karelana.

## Orio

### Azterketak

■ Apirilaren 28an, Orioko Udaleko udako lanpostuak betetzeko azterketak: kanpinoko zaindariatarako, hondartzako kabinen garbiketarako, kanpinoko komunen garbiketarako eta udaltzain laguntzaileetarako. 09:00etan, Orioko Herri Ikastolako aretoan.

### Bingo

■ Maiatzaren 2an eta 9an, bingo saioa adinekoentzat. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

### Informatika

■ Maiatzaren 3an, Doaneko antibirus programei buruzko ikastaroa. 09:00etatik. 11:00etara, KZgunean.

■ Maiatzaren 3an, Oinarrizko OpenOffice ikastaroa.

11:00etatik 13:00etara, KZgunean.

■ Maiatzaren 4an, OpenOffice ikastaro aurreratua. 11:00etatik 13:00etara, KZgunean.

■ Maiatzaren 7tik 18ra, Internet KZ ikastaroa. 09:00etatik. 11:00etara, KZgunean.

■ Maiatzaren 8an, Facebook ikastaroa. 11:00etatik 13:00etara, KZgunean.

■ Maiatzaren 11n, Youtube ikastaroa. 11:00etatik 13:00etara, KZgunean.

■ Maiatzaren 2an eta 10ean 11:00etatik 13:00etara, IT txartela ateratzeko azterketa, KZgunean.

### Hitzaldiak

■ Maiatzaren 3an, Gipuzkoa Zero Zabor taldekoen hitzaldia. 19:30ean, Kultur Etxeko aretoan.

### Ibilaldia

■ Maiatzaren 5ean, Orio Zero Zaborrek antolatuta, Urtetako zabortegea ikusterera. Irteera, 09:30ean, Herriko Plazatik.

■ Maiatzaren 6an, Ikastolak antolatuta egun pasa. Ibilbidea Orio-Erota-Iturran-Laurgain-Agorregi-Orio. Nork bere bazkaria eraman. Irteera, 09:00etan, Ikastolatik.

### Ikastaroa

■ Maiatzaren 6an, Mandalak antolatuta, pendulua erabiltzen ikasteko tailerra. Irakaslea: Elena Andreiñua de Santiago. Izena emateko: 648 487 489 (Amaia) edo mandalarataldea@gmail.com. 45 euro. 10:00etatik 14:00etara, Kosta tailerrean.

■ Maiatzeko ostegunetan, munduko sukaldaritzako ikastaroak: 6an, Mexiko; 13an, Ni-karagua; 20an, Portugal;

### Musika

■ Maiatzaren 11n, Azkaiter Peloxen *Zamburleiker 6 disko berrira labea* kontzertua. 22:30ean, Kalakari tabernan.

## Aia

### Afaria

■ Maiatzaren 5ean, afaria, *Larra* DJak animatuta. Sagardotegiko menua 25 euro. Erreserba: 943 37 26 91. Urdaira jatetxean.

■ Maiatzaren 5ean, Santion eskolan ibilitakoen afaria. Izena emateko azken eguna: maiatzak 1. 600 743 189 (M. Eugenia).

### Silo-Bolak

■ Maiatzaren 8an, silo-bolen bilketa. Zerbitzuari buruzko informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 049 751).

# MAIATZEKO AGENDA ORION

## **Maiatzaren 3a, osteguna**

19:30 "Gipuzkoa zero zabor" hitzaldia Kultur Etxeko areto nagusian.

## **Maiatzaren 5a, larunbata**

16:00 Delan eta 18:00 delan, Gipuzkoako emakumeen saskibaloitokiako 4ko finala Karelain ZAST-ek antolatuta. Partaideak ZAST, Atlético San Sebastián, Cafés Aitona eta Eskoriatza.

## **Maiatzaren 6a, igandea**

11:00 Gipuzkoako emakumeen saskibaloitokiako 4ko finala Karelain ZAST-ek antolatuta.

11:00 eta 13:00 Solbol partidak, ohoreko maila, KROULI DEB - Atlético San Sebastián, Mendibeltz zelain.

13:00 Salaboi plazaren inaugurazioa meza nagusia eta gero, Salaboi abesbatzak kontzertuko du. Ondoren otardua areto berria eta Danbolinako sokataldeak giroketa.

## **Maiatzaren 7a, astelehena**

19:00 "Nafarroa, euskal estatuaren historia" hitzaldia, Kultur Etxean, Nafarroa Bizirik Orion taldeak antolatuta. Hitzaria: Beñi Agirre.

## **Maiatzaren 8a, asteartea**

18:00 Danbolin Musika eskolako piano-jotzaileen emanaldia Kultur Etxean.

## **Maiatzaren 10a, osteguna**

19:00 "1200, Gipuzkoaren konkista" hitzaldia Kultur Etxean, Nafarroa Bizirik Orion taldeak antolatuta. Hitzaria: Idoia Ametia.

## **Maiatzaren 11a, ostirala**

15:00 Gipuzkoako Eskolarteko 32. bertsolari txapelketa Karelain.

14:30 Bidasoako itzuliko 3. etapa, Urri-Ollo. Proba 16:45 inguruan bukatuko da.

## **Maiatzaren 12a, larunbata**

Goizez, Irripandero Itopaketa kalezkale, Eguraldi txarra eginez gero, Karelain izango da.

11:00 Trainerilen Itopaketa estropada.

16:00 Bokolatada eta burunandak Kultur Etxe atzeko plazan, Batea Elkartek antolatuta.

18:00 "Goazen itsasora" hauimentzako antzerkia Kultur Etxe atzeko plazan Batea Elkartek antolatuta. Eguraldi txarra eginez gero, Kultur Etxean izango da.

19:00 Diana Blanco eta Edorta De Antarekin mahaingunea Kultur Etxean. Sarioaren gidaria: Iker Gurmubaga.

## **Maiatzaren 13a, igandea**

Artisautez azoka egun osoz herriko kaleetan (Jemiko Plazan, Goiko Kalean eta musika eskolako plazan).

## **Maiatzaren 14a, astelehena**

18:00 Miriam Mendoza jaiun kontalaria, Kultur Etxe atzeko plazan, Batea Elkartek antolatuta. Eguraldi txarra eginez gero, Kultur Etxean izango da.

## **Maiatzaren 17a, osteguna**

19:00 "Gaztearen suntsiketaren" hitzaldia Kultur Etxean Nafarroa Bizirik Orion taldeak antolatuta. Hitzaria: Joseba Asiron.

## **Maiatzaren 19a, larunbata**

Piragua irteera Herriok antolatuta.

## **Maiatzaren 20a, igandea**

11:00 eta 13:00 Solbol partidak ohoreko maila, KROULI DEB - Orma (Mañri), Mendibeltz zelain.

## **Maiatzaren 24a, osteguna**

19:00 "Independenziaren oleria" hitzaldia Kultur Etxean Nafarroa Bizirik Orion taldeak antolatuta. Hitzaria: Angel Rekaite.

## **Maiatzaren 25a, larunbata**

Generazioen arteko eguna, Esperientzia Eskolaik, beste herrietako haizbat elkartekin batera, ekintzak antolatuko ditu egun osoan.

Solbol partida, kadete/jubenilak, DEB - BENTOKS (Erranteria), Mendibeltz zelain.

## **Maiatzaren 27a, igandea**

Kukuami eguna mendibilaldia.

Solbol partida, kadete/jubenilak, DEB - BENTOKS (Erranteria), Mendibeltz zelain.



## **GARAJEITXIAK SALGAI MENDIBELTZ ZELAIAREN AZPIAN**

**BINEURRITAKOAK:**  
**16,50 M<sup>2</sup> (20.000 EURO)**  
**20,67 M<sup>2</sup> (25.055 EURO)**

INFORMAZIO BEHIGARRI  
ORIOKO UDALETXEAN (943830346)  
UDALETXEKO ORRUTERIA:  
ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 08:30ETIK 14:30ERA

FINANTZATZEKO

